

Garapenerako politiken koherentzia

Eusko Jaurlaritzaren
enpresa-nazioartekotzerako
politikaren analisia



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

Garapenerako politiken koherentzia

Eusko Jaurlaritzaren
enpresa-nazioartekotzerako
politikaren analisia



Argitaratzailea:



Simone de Beauvoir Elkarteen Etxea
San Ignacio de Loyola 8, 3. 1. bulegoa
01001 Vitoria-Gasteiz
945 28 07 45
araba@ongdeuskadi.org

Ronda z/g (5. zenbakiaren aurrean), 3. C bulegoa
48005 Bilbao
944 15 03 00
bizkaia@ongdeuskadi.org

Iparragirre 8, behea
20001 Donostia
943 46 35 26
gipuzkoa@ongdeuskadi.org

www.ongdeuskadi.org

Egileak:

Gorka Xabier Martija Rodrigo
Gonzalo Fernández Ortiz de Zárate
Beatriz Plaza Escrivà
Juan Hernández Zubizarreta

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.
Inprimaketa: Gráficas INGUGOM S.L.
Itzulpenak: Bakun itzulpen eta argitalpen zerbitzuak
Lege-gordailua: BI-1288-2017

Argitalpen honek *Garapenerako politiken
koherentzia. Eusko Jaurlaritzaren
enpresa-nazioartekotzerako politikaren analisisia*
txosten osoaren bertsio laburtua jasotzen du.
www.ongdeuskadi.org web-orrialdean
bertsio osoa eskuragarri dago.

Aurkibide orokorra

Akronimoen eta siglen aurkibidea	7
Irudien aurkibidea	9
Sarrera	11
I. Kapitulua. Erreferentzia-esparrua	23
1.1. Garapenerako politiken koherentzia	23
1.2. Giza garapen jasangarria	27
1.3. Enpresak nazioartekotzeko politika	30
1.3.1. Definizioa: eremuak eta tresnak euskal esparruan	30
1.3.2. Testuingurua: globalizazioa eta botere korporatiboa	34
1.4. Enpresen nazioartekotzea politiken koherentziaren ikuspegitik aztertzeko irizpideak	37
II. Kapitulua. Eragileen mapa	43
2.1. Eragileen maparen deskribapena	43
2.1.1. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	44
2.1.2. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia	44
2.2. Eragileen maparen azterketa kritikoa	45
III. Kapitulua. Agiri estrategikoak	47
3.1. Agiri estrategikoen deskribapena	47
3.1.1. Ekonomiaren susperraldiaren eta enpleguaren aldeko esparru-programa	47
3.1.2. Nazioartekotzeko 2020rako esparru-estrategia: <i>Basque Country Estrategia</i>	47
3.1.3. Enpresak Nazioartekotzeko Plana 2014-2016	48
3.1.4. Kanpo Ekintzako Plana 2014-2016	48
3.2. Agiri estrategikoen analisi kritikoa	48
IV. Kapitulua. Tresnak	51

4.1. Tresnen esparruaren deskribapena	51
4.1.1. Diru-laguntzen ildoak	52
4.1.2. Diplomazia ekonomikoa	53
4.1.3. Jatorrian indartzea gaitasunak	54
4.2. Tresnen esparruaren analisi kritikoa	55
V. Kapitulua. Konklusioak eta gomendioak	59
5.1. Konklusioak	60
5.2. Gomendioak	65
Bibliografia	71

Akronimoen eta siglen aurkibidea

AIZ. Atzerri-inbertsio zuzena

BPG. Barne-produktu gordina

COP21. Nazio Batuen Konbentzio Esparrua Klima Aldaketaz, alderdien 21. konferentzia

EAE. Euskal Autonomia Erkidegoa

EGLS. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila

EHAA. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria

EIT. Ekonomia-intereseko taldea

ELGE. Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea

ENP. Enpresak nazioartekotzeko politika

ETE. Enpresa txiki eta ertainak

GBI. Garapenerako Banku Interamerikarra

GGJ. Giza garapen jasangarria

GGKE. Garapenerako gobernuz kanpoko erakundea

GJH. Garapen jasangarriko helburuak

GLEA. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

GPK. Garapenerako politiken koherentzia

IAMAT. Ipar Amerikako Merkataritza Askerako Tratatua

ICSID. Inbertsioen inguruko Desadostasunak Konpontzeko Nazioarteko Zentroa.

I+G. Ikerketa eta garapena

KGE. Korporazioen gizarte-erantzukizuna

Koop. Soz. Kooperatiba-sozietatea

LANE. Lanaren Nazioarteko Erakundea

MMA. Munduko Merkataritza Antolakundea

NBGP. Nazio Batuen Garapenerako Programa

NMG. Nazioarteko merkataritza-ganbera

SA. Sozietate anonimoa

SL. Erantzukizun mugatuko sozietatea

SPRI. Enpresa-garapenerako euskal agentzia

TTIP. *Transatlantic Trade and Investment Partnership*
(Atlantikoaz haraindiko Merkataritza eta Inbertsioen gaineko Ituna)

UPV/EHU. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

Irudien aurkibidea

1. Ikerketaren lan-moldea	18
2. Txostenaren xedearen gaineko oharra	19
3. Eusko Jaurlaritzaren GPK konpromisoak	26
4. Giza garapen jasagarriaren indar-ideiak	30
5. ENPren 3 eremuak	31
6. ENPren tresnak	32
7. ENPren esparruak, tresnak eta ekimenak	32
8. Eusko Jaurlaritzaren ENPren esparruak, tresnak eta ekimenak	33
9. Erreferentzia-esparruko 18 irizpideak	38
10. Eragileen mapa orokorra	43
11. Agiri estrategikoen eskema orokorra	47
12. Eusko Jaurlaritzaren ENPren tresnak	51

Sarrera¹

Sarrera honetan, txostenaren alderdi nabarmenak azalduko ditugu. Eusko Jaurlaritzaren enpresa-nazioartekotzerako politika (ENP) aztertzen du txostenak, garapenerako politiken koherentziaren (GPK) ikuspegitik.

Lehenik eta behin, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak bultzatu duen ekimen honen jatorria adieraziko behar dugu; izan ere, testuinguruari begiratuta, aintzat hartu behar da, oro har, krisi global handi baten testuinguruan gaudela. Zehazki, EAEko GPKari begiratuta, nabarmendu behar da Eusko Jaurlaritzak berariaz egin zuela, 2016ko apirilean, giza garapen iraunkorraren aldeko politikei koherentzia emateko apustua, batik bat, kanpo-ekintzaren alorrean.

Horren ondoren, bigarrenik, txosten honek bete nahi dituen 3 helburuak eta helburu horiei aurre egiteko lanaren oinarrian dauden premisak azalduko ditugu, analisiaren xedea izango den subjektua eta eremua mugatzeko. Azkenik, erabilitako metodologiaren berri emango dugu sarrerako atal hau amaitzeko. Dokumentazioaren analisia eta EAEko gobernuaren ENPre sare instituzionaleko pertsona nabarmenei egindako elkarrizketak uztartzen ditu metodologia horrek, eta askotariko gizarte-eragileek (garapenerako GKEak, sindikatuak eta ekonomia solidarioko erakundeak) osatutako espazio bat izan du, ikerketan egindako aurrerapenak kontrastatzeko.

Txostenaren testuingurua eta jatorria

Egoera kritikoan dauden gaur egun gizateria eta, oro har, planeta osoa. Asko eta gero eta larriagoak dira desberdintasun-egoerak. Larritze-joera horrek kinka larrian jar dezake orain arte ezagutu dugun bizimoduaren geroa, hegemonia-egoerara iritsi baita mugarik gabeko hazkunde ekonomikoan oinarritutako zibilizazio-printzipioa. Horren harian, eze-gonkortasun handiko oraina eta etorkizuna marrazten ditu klima-aldaketak. Era berean, energiaren alorrari begiratuz gero, ikusten da hurrengo hamarkadetan agortzera egingo dutela egungo ereduaren oinarri diren baliabide fosil nagusiak (petrolio, gasa, ikatza), eta horrek ezezaguna den egoera batera garamatza. Nabarmen murriztuko da, beraz, eredu horren oinarri materiala, eta egoera horrek hainbat norabideko eraldaketa ekonomikoak, politikoak eta sozialak eragingo ditu. Horrenbestez, garrantzi handiko *une historikoa* da oraingoa, ziurgabetasun handia eta erronka sistemiko itzelak baititugu.

Gainera, testuinguru konplexu batean egin behar diegu aurre erronka horiei. Hainbat aldagaiak (jardunbide ekonomikoak, klima-aldaketak, energiaren trantsizio-egoerak, erre-produkzio sozialak, zaintza-premie, elikadurak, finantzarizazioak, migrazioek, indarkeriak

1 Txosten osoaren bertsio laburtua da hau. Hemen dago eskuragarri txosten osoa: www.ongdeuskadi.org

eta beste aldagai askok) sorrarazi dute, elkarreraginean, egungo testuinguru konplexua, eta egoera horren erantzule da, era berean, globalizazio neoliberalak osatu duen gobernantza-agertoki berria. Horren guztiaren ondorioz, aldatu egin dira estatu-nazioari atxikitako herritartasunaren eta subiranotasunaren kontzeptuak, eta konpartitutako subiranotasunak dira haien ordezkotza, indar demokratiko apalagoa duten arren. Pertsonen eta herrien erabakiak eskualdeetara eta/edo alde anitzeko esparruetara daramatzate prozesu horiek, eta, zenbaitetan, erabaki horiek pribatizatu eta korporazioen esku uzten dira. Estatuez gain, eragile ugariak parte hartzen dute gobernantza global berri horretan, hala nola tokierakundeek, nazioz gaindiko enpresek, gizarte-mugimenduek, alde anitzeko organismoek, herriek, komunitateek eta beste hainbatek. Jokamolde askotarikoak darabiltzate horiek guztiek, norabide anitzetan.

Labur esanda, konplexutasun horretan nabigatzeko premian datza aurrean dugun desafioren muina; hori horrela, berariaz sustatu behar dira biziaren defentsa, guztien ongia, giza eskubideen nazioarteko esparrua eta jasangarritasuna. Era berean, subiranotasun konpartituen testuinguru horretan, funtsezkoa da eragile denetarikoez elkarrekiko duten mendetasunaz eta erantzukidetasunaz jabetzea, aurrez adierazitako agendetan ezarritako helburu komunak lortze aldera. Alde horretatik, eragile bakoitzak bere nortasunetik eta gaitasunetik abiatuta landu behar ditu harremanak, ekarpenak eta konpromisoak.

Hain justu, garapenerako politiken koherentzia (GPK) apustu bat dela esan behar da, ezinbestekoa baita, koherentzia hori erdiesteko, elkarrekiko mendekotasunaren eta erantzukidetasunaren ikuspegitik lantzea erronka globalak; aintzat hartuta, beti, alderdi anitzeko testuinguru batean jokatzeko dugula, eta betetzekoak direla Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) eta COP21 konbentzioak ezarritako konpromisoa: tenperaturaren batez besteko balioaren gehieneko iguera industria-aurreko mailetatik 2 °C goragora mugatzea.

Hori horrela, GPK aldaketarako agenda horietan eta beste batzuetan logika instituzional batetik eragiteko lehenetsutako bide bat dela ulertzen da; bide horretan giza garapena eta jasangarritasuna erreferentzia izan behar dute, bai, batetik, gobernuen ekintza-politika osoarena, baita, bestetik, askotariko eragileek maila anitzetan izango duten antolamenduarena edo artikulazioarena ere. Finean, politika isolatuen bultzada gainditzeko asmoa duen ikuspegia da, askotarikoak eta, zenbaitetan, antagonikoak diren premisetan oinarritzen diren aldetik. Izan ere, politika horiek, maiz, ez dituzte egiten diren ahaleginak koordinatzen, nahiz eta, gaur egun, premiazkoa den baterako lana egitea gizarte-antolamendu bidezkoak, ekitatezkoak eta jasangarriak bultzatzeko.

Alde horretatik, ez dagokie soilik estatuei garapenerako politikak koordinatzea, premiazkoa baita alderdi anitzeko, eskualdeko eta tokiko erakundeek baterako lan hori egitea ere, bakoitzak bere izaeraren, eskumenaren eta gaitasunaren arabera. Garrantzi handikoa da, berariaz, estatuaz azpiko erakundeek GPKren esparruan bete dezaketan egitekoa, tokian tokikoak protagonismo handia baitu globalizazio neoliberallean. Ez da ahaztu behar

tokian tokiko esparruetan bizi dela oraindik ere jendartearen gehiengoa. Tokian tokiko esparruetan gauzatzen dira, era berean, alternatiba politiko, ekonomiko, sozial eta kultural berrien saiakuntzak, lurraldean errota eta tokian tokitik proiektatu ondoren. Horrenbestez, garrantzi handia du garapenerako politikak estatuz azpiko eremuetan koordinatzeak, bestelako eremuetan baino bertsio gardenagoa eta parte-hartzaileagoa izan baitezake, herriengandik eta pertsonengandik duten gertutasunarengatik.

Horren jakitun da Euskadiko GGKEen Koordinakundea eta, azken urteetan, helburu estrategikotzat hartu du garapenerako politiken koordinazioa. Alor horretako prestakuntza-jarduera, debate eta eragin politikoko ekimen ugari sustatu ditu, harik eta gai horren erreferente bilakatu den arte EAEn. Eta garapenerako politiken koordinazio-prozesuan aurrera egiteko interes horretatik sortu da, hain justu, orain arte egin diren ekimenak ikerketa-ildo berri batekin osatzeko ideia, langintza horren bidez jakiteko zer-nolako egoeran dauden interes bereziko gaien egoera eta baterako gogoetei bide emateko –hori da, esaterako, txosten honen helburuetako bat–. Aukera bat dakarren leihoa ireki zaio Euskadiko GGKEen Koordinakundearen aitzindaritzaren apustu sozial horrek; izan ere, Eusko Jaurlaritzak *Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparrua* (hemenetik aurrera, *GPK Esparrua*) onartu baitu 2016ko apirilaren 5ean egindako bilkuran. Giza garapenaren eta jasangarritasunaren aldeko konpromiso instituzionala adierazten du agiri horrek, Jaurlaritzaren ekintza guztiaren erreferentzia izan behar duten aldetik, batik bat, kanpo-ekintzaren alorrean; beraz, agertoki berri batean gaude, aurrekoa baino egokiagoa dena, hasiera batean, gaiari buruz hitz egiteko eta bide horretan eragin eta aurrera egiteko.

Hain zuzen ere, enpresa-nazioartekotzea da, nazioarteko lankidetzarekin batera, Eusko Jaurlaritzaren kanpo-politikarako tresna nagusia, eta oso jakingarria da, ondorioz, bien arteko koherentzia zer-nolako den jakitea. Adierazi dugun moduan, funtsezkoa da nortasun komun bat maila guztietan, eta, bereziki, kanpora begira, proiektatzea, aurre egin behar ditugun erronken harira.

Berriaz adierazi behar da ENP ez dela, inola ere, maila apaleko beste politika bat, ezta Eusko Jaurlaritzak soilik egiten duen apustua ere. Aitzitik, tresna hegemoniko bat dela esan daiteke, eta gobernuek, haren bidez, aurre egin nahi diote egungo krisi ekonomikoari. Hori horrela, gobernuen xede-asmu politikoei bat egiten dute beren lurraldearen diren enpresen xedeekin, aintzat hartuta enpresek beste batzuekin lehian aritzen direla gero eta urriagoak diren merkatu-hobiak eskuratzeko aldera eta, azken buruan, errentagarritasuna eta lehia direla haien printzipio nagusiak.

Honako hau adierazi zuen Urkullu lehendakariak, 2014ko otsailaren 5ean, *Nueva Economía* foroan eman zuen hitzaldian:

"Hamarkada honek, 2010etik aurrera, nazioartekotzea du jardun-xede. Mundua globala da, eta merkatu global horretan izan nahi dute euskal enpresek. Gaur

egun, esportatzea ez da aski, kanpo-merkatuetan ezartzea da etorkizuna. Basque Country hamarkada bizi dugu, nazioartekotzearena” (Eusko Jaurlaritza, 2014c: 3).

Hala ere, itxura batean, errentagarritasunaren, lehiakortasunaren eta konpetentziaren printzipioek talka egiten duten elkarren mendekotasuneko, erantzukidetasuneko, giza garapeneko eta jasangarritasuneko printzipioekin. Alderdi horretan, Hegoa Institutuari eskatu zaion diagnostikoari begiratu behar zaio, horren berri ematen baitu Eusko Jaurlaritzak GPKn egingo duen apustuaren oinarriak (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, 2015b). Diagnostiko orokorra baldin bada ere –ENPren dokumentu estrategiko nagusiak soilik aztertzen ditu, eta ez eragile, tresna, deialdi eta ebazpen guztiak–, adierazten du, printzipio nagusien artean, lehiakortasuna gailendu egiten zaiela elkarlanari eta lankidetzari, eta ez dagoela Eusko Jaurlaritzaren kanpo-ekintzan giza garapena txertatuko dela bermatzen duen ildo edo mekanismorik. Horrenbestez, irizpide kritikoz aztertu behar dira GPKren eta ENPren arteko korrelazioa eta bien arteko lotura indartzeko balizko proposamenak, eta, bataren zein bestearen arteko bateragarritasuna edo bateraezintasuna baloratu behar da.

Txosten honek, finean, orain artean adierazi ditugun hiru kontzeptu handiak, hau da, krisi globala, politiken koherentzia eta enpresa-nazioartekotzea, lotzeko erronka planteatzen du, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak eta Eusko Jaurlaritzak alor horretan egiten ari diren apustuen esparruan. Hori horrela, Jaurlaritzak krisiari aurre egiteko duen tresna nagusiak giza garapenaren eta jasangarritasunaren ikuspegiekiko duen koherentziaren gaineko debate publikoa zabaltzea da txostenaren helburua, ziurgabetasuneko egoera konplexuak bizi ditugula aintzat hartuta eta, ondorioz, premiazkoa dela egoeraren nondik norakoak ulertzea, biziaren alde egiteko erabakigarritasuna izatea, erantzukidetasuna lantzea eta elkarrekiko mendetasuna kudeatzea.

Txostenaren helburuak eta egitura

Ikerlan honen testuinguruari eta sorburuari begiratuta, honako 3 helburu osagarri planteatzen ditu txostenak:

1. Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen enpresa-nazioartekotzeko politikan eragiten eta elkarrengaitan duten ikuspegien, printzipioen, eragileen eta tresnen esparru nagusia *ezagutzea*.
2. Ikuspegi kritikoz *ebaluatzea* Eusko Jaurlaritzaren enpresa-nazioartekotzeko politikak giza garapenaren eta jasangarritasunaren ikuspegiekiko –18 irizpidez osatutako erreferentzia-esparrua aintzat hartuta²– duen koherentzia, bai, alde batetik, onda-

2 Txosten honen lehenengo kapituluan azaltzen dira ENPa giza garapenaren eta jasangarritasunaren ikuspegietatik aztertzeko baliatu dugun erreferentzia-esparruko 18 irizpideak.

sunen eta zerbitzuen esportazioari ematen zaien laguntzen alorretan, bai, bestetik, kanpo-ezarpenari emandakoetan.

3. Neurri zehatzak *proposatzea*, Eusko Jaurlaritzaren kanpo-ekintzan politika koherente bat egiteko agenda bat eta egitura bat ziurtatzeko.

Horren guztiaren lehen helburua da, beraz, jakitea nork, zerk, nola eta zer ikuspegi politikorekin bultzatzen ari den ENPa Eusko Jaurlaritzatik. Garrantzi handiko helburua da hori, gaur egun ez baitago gai hori sakonean aztertu duen azterlan kritikorik. Txosten honek, beraz, ikerketa-ildo estrategiko bat abiarazten du, eta, lan hori egiteko, eragileen, tresnen eta ekimenen mapa bat ematen du, baita erreferentziatzko arau-esparru bat ere, ENPa osotasunean aztertzeko.

Txostenaren bigarren helburua da giza garapenaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik ebaluatzea Eusko Jaurlaritzak egindako ENParen lana, eta lortu den koherentziaren nolakotasuna baloratzea, 18 irizpidetako erreferentzia-esparru bati begiratuta. Esparru hori *ex profeso* sortua da, GPKren, giza garapenaren, jasangarritasunaren eta ENParen uztarduran.

Azkenik, pilatu den jakintzari eta egindako balantzeari begiratuta, Eusko Jaurlaritzak GPKren alde egin duen apustua indartzeko proposamen batzuk egingo dira, baldin eta bide horretan aurrera egiteko borondate politikorik baldin badago.

Hiru helburuak azaldu ondoren, aztertua izango den subjektuaren –Eusko Jaurlaritzaren– ezaugarrietara egokituko ditu, batetik, eta aztertutako eremura –enpresa-nazioartekotzerako politika–, bestetik.

Alde horretatik, *aztertua izango den subjektuari begiratuta*, 2 zehaztapen egin behar direla iruditzen zaigu, Eusko Jaurlaritzaren eskumen-eremuari dagozkionak hein handi batean:

- Eusko Jaurlaritzak eskumen mugatuak ditu enpresa-nazioartekotzearen esparruan, estatuek eta Europako eskualde-egiturek dituztenak baino nabarmen apalagoak. Europar Batasuneko (EB) erakundeen eskumen eskusiboa da merkataritza-politika, eta kanpo-politika, berriz, EBko kide diren estatuena, hau da, estatu espainiarrarena, kasu honetan. Alde horretatik, Paul Ortega eta Ainhoa Ondarzabal³ bikoak dioten moduan, enpresa handiek ez dute estatuaz azpiko eremukoa den gobernu baten baliabide mugatuen babesa bilatzeko premia handirik. Esparru

3 “*ETEak dira, batik bat, gure programen eta zerbitzuen xedeak. Enpresa handiek egina izaten dute beren ibilbidea, eta, agerikoa den moduan, ez dute gure beharrik; gainera, maiz askotan, haiek lagundu behar izaten gaituzte gu, gero geuk laguntzeko enpresa txikiei*”.

hori estua baldin bada ere, ekimenak egin daitezke eta egiten dira ENPa osatzen duten politiken mosaikoaren barruan, hala nola diru-laguntzen ildoak abiaraztea, estatu-izaerarik gabeko diplomazia ekonomikoko prozesuak egitea, eta enpresen gaitasunak handitzeko estrategiak erabiltzea aurrez adierazitako 3 esparruetan (esportazioetarako laguntzak, enpresen kanpo-ezarpenera eta atzerriko inbertsioen erakarpenera). Egingo den analisia, beraz, Eusko Jaurlaritzaren eskumen-esparruari eta jarduteko duen egiazko gaitasunari soilik begiratuko dio.

- Eusko Jaurlaritzaz gain, foru-aldundiek ere ekimen handiz esku hartzen dute enpresa-nazioartekotzeko euskal politikan, atzerriko inbertsioak erakartzeko esparru berriak. Eusko Jaurlaritzaren jarduna soilik aztertzen du gure txostenak, izaera estrategikoa duen eragilea irizten dugulako, baina etorkizunean ENPrek analisia foru-aldundietara zabaltzeko gomendioa aurreratu nahi dugu, EAEn enpresa-nazioartekotzerako kanpo-ekintzan egiten den lanaren argazki orokorra marrazteko.

Era berean, *analisi-eremuari* begirata –Eusko Jaurlaritzaren enpresa-nazioartekotzerako politika–, 4 elementu edo osagai hartu behar dira kontuan izaera honetako txosten bati ekiteko, ikerketa-ildo berri eta estrategiko bat abiarazten duen aldetik:

- ENPrek bi eremu bereizgarri aztertzen ditu txostenak (ondasunen eta zerbitzuen esportazioak indartzeko politikak, alde batetik, eta enpresen kanpo-ezarpenera, bestetik), eta ez du aztertzen atzerriko inbertsioen erakarpeneraren alderdia. Lehenetsi diren bi eremu horiek harreman zuzena dute enpresa-nazioartekotzearen esanahi zabalduenarekin (kanpo-merkatuetan barneratzea, bai ondasunak edo zerbitzuak salduz, bai merkatu horietan ezarpen egonkorra eginez), bien funtzionamendudinamikek korrelazio-indar handia dute (izan ere, ezarpenaren aurreko fasea izan ohi da esportazioa⁴), eta estrategia eta tresna komunak konpartitzen dituzte; beraz, egoera horrek erraztu egiten du analisia edo azterketa-lana. Atzerriko inbertsioen erakarpeneraren alorrak, berriz, bestelako parametro propioak ditu. Horrez gainera, eragile politiko eta enpresa-eragile askok, beren nazioartekotze-estrategien barruan, egiturazko garrantzia ematen diote esportazioari eta kanpo-ezarpenerari. Horren erakusgarri da Urkullu lehendakariaren hitzak, lehen ekarritakoak. Horrenbestez, bi esparru estrategiko horiek aztertuz gero, Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen ENPrek ezaugarrien gaineko informazio nahikoa eta oso baliotsua eskuratuko dugu. Hala ere, ikusten dugu begirada hori osatu behar dela, etorkizunean eta tamaina handiagoko azterlan-esparruetan, ikuspegi osoago batetik egiteko atzerriko inbertsioak erakartzeko politiken azterketa berriak, foru-aldundien jarduna ere aztertuko duena.
- Txostenak, batik bat, enpresa-nazioartekotzerako politikaren oinarriak aztertzen ditu, baina ez haren eragin edo inaktuak. Horrela, Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen

4 Ildo hori hobesten du Urkullu lehendakariak honako adierazpen honetan: “*Gaur egun, esportatzea ez da aski, kanpo-merkatuetan ezartzea da etorkizuna*”.

politika publiko hori osatzen duten parametro nagusiak (estrategiak, lehenetsunak, eragileak, tresnak, baldintzak, egiturak, jarraipen-sistemak) ebaluatzen ditugu, aurrez adierazi dugun erreferentzia-esparruaren arabera. Alabaina, ez dugu azken urteetan lortutako emaitzaren balantzerik egiten, bi arrazoi nagusi hauengatik: lehenik eta behin, beste molde bateko ikerketa bat, bestelako denbora bat eta bestelako baliabideak behar dituena, egin behar baita bultzatu diren ekimen askotarikoak aztertzeko; eta, bigarrenik, ez dagoelako horren jarraipena eta ebaluazioa egiten duen sistema publikorik, lan horri ekiteko behar den informazio eguneratua eta nahikoa ematen duenik.


- Denbora-epe jakin baten erreferentzia hartzen du txostenak: 2014-2016. Denbora-epe horretan abiatu da Eusko Jaurlaritzak nazioartekotzearen esparruan X. legegintzaldirako duen estrategia. Denbora horretan, indarrean izan da gai alor horretan izaera estrategiko nabarmena duen agiri hau: *Enpresak Nazioartekotzeko Plana 2014-2016*. Era berean, ENPk Eusko Jaurlaritzarentzat gero eta izaera estrategikoa duela aintzat hartuta, gai alor horretan berrikuntzako ekimenak eta sistematizazioak abian jartzeko denbora izan da, eta horrek adierazten du denbora-epe horren analisiak balio bereziki handia duela, aztergaiari begiratuta. Azkenik, adierazi behar da denbora horretan osatu den artikulazio edo antolamendua izango dela, ziur asko, hemendik aurrera, epe laburrean, ENPn jarraituko diren ildoan adierazlerik fidagarriena.
- Txostenak izaera kritikoz eta ikuspegi eraikitzailetik aztertzen du Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ENPren GPK maila, eta bereziki lantzen ditu haren indarguneak eta ahuleziak, gero eta lotura sendoagoak izan ditzan giza garapenarekin eta jasangarritasunarekin. Txostenaren molde nagusia hori den arren, kontuan izan behar da, hobekuntzak egin daitezkeen arren, enpresak nazioartekotzeko politika bera dela auzitan dagoena, ez baitute pertsona guztiek ikusten garapenerako tresna moduan. Gaur egun, krisi global bat bizi dugun garaian, argi eta garbi osatu behar dira biziaren defentsan lan egingo duten agendak, eta erantzukidetasuna eta interdependentzia izan behar dute jardueraren printzipio. Ez dago argi, ordea, ENPk bide hori urra dezakeen ala bere berezko jardunak kontrako bidea ez ote duen egiten, bai baitu loturarik hazkunde ekonomiko mugagabearekin, kapitalaren gailentasunarekin eta lehiarekin. Politika horren printzipio indartsuak dira hiru horiek, eta, ondorioz, koherentzia bilatzeko ahaleginak alferrikakoak, edo, onenean, oso apalak eta urrunak izan daitezke. Txosten honek azaletik ukitzen du debate hori, bere muinera sartu gabe, eta, funtsean, ikuspegi kritikoa batetik aztertzen ditu ENPk GPKrekiko dituen gabeziak eta gaitasunak⁵.

5 Ez dira, inondik ere, debate isolatuak. Alde horretatik, egiten dugun analisiaren ondorioak baliagarri izan daitezke ENPren eta gizarte-eraldaketaren arteko bateraezintasunaren gaineko hausnarketa edo gogoeta elikatzeke, antzekoak edo osagarriak izan daitezkeen beste azterlan eta ikerlan batzuen ondorioei erreparatuta.

Finean, hiru xede ditu txostenak (ezagutzea, ebaluatzea eta proposatzea), eta bere analisia Eusko Jaurlaritzak bere eskumenen esparruan bultzatzen duen ENPren GPK maila aztertzea mugatzen da. Lan horretatik abiatuta, enpresak nazioartekotzeko politikaren parametro nagusiak aztertzen ditugu –ez haren inaktuak–, ondasunen eta zerbitzuen esportazioaren eremuan, eta euskal enpresen kanpo-ezarpenaren eremuan, biak ere eremu estrategikoak. Azkenik, analisiak ikuspegi kritikoa eta eraikitzailea izango da, eta ez du ezkutatuko ENPren beraren egokitasuna zalantzan jartzen duen debate latentea, ez baitute denek ikusten giza garapenerako eta jasangarritasunerako tresna baten moduan.



1. Irudia: Ikerketaren lan-moldea



Iturria: Geuk osatua

Izaera hori duela azaldu ondoren, txostenaren egitura azalduko dugu orain. Ikerlanaren erreferentzia-esparruaren berri emango dugu lehenengo kapituluan, eta 18 irizpide zehaztuko ditugu, giza garapeneraren eta jasangarritasunaren ikuspegietatik gauzatzeko Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ENPren ebaluazio kritikoa. Ondoren, nagusiki eta lehen-tasunez ENPn parte hartzen duten eragileen eta egituren mapa azalduko dugu, eta hirugarren kapituluan politika horren ikuspegiaren berezitasunak eta lehen-tasunak azalduko ditugu, Eusko Jaurlaritzak dituen dokumentu estrategiko nagusiak aztertuta. Horren

ondoren, plangintza estrategikoen dakarten tresnak eta ekimen nabarmenak aztertuko ditugu, eta, amaitzeko, ondorio batzuk azalduko ditugu, laburtuta, eta gomendio batzuk egingo ditugu. Txostenaren hari gidariak, beraz, alderdi teoriko-politikoak du abiapuntu (agiri estrategikoak, egiturak, eragileak) eta alderdi politiko-teknikora zehaztutara iristen da (tresnak, baldintzak, baremoak, berariazko ekimenak), sekuentzia hau erabilita: *erreferentzia-esparrua-dokumentu estrategikoak-tresnak eta ekimenak*. ENP osoaren azterketa integrala egiteko aukera ematen digu lan horrek.



2. Irudia: Txostenaren xedearen gaineko oharra

- ... Eusko Jaurlaritzaren analisia, erkidegoko gobernuaren eskumenei begiratuta
- ... ENPren eragile nagusi, baina ez bakarraren, analisia
- ... Atzerrira esportatu eta han ezartzeko esparru estrategikoen analisia
- ... Enpresak nazioartekotzeko politikaren analisia, eraginak aztertu gabe
- ... Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ENPren GPK mailaren analisi kritikoa eta haren gaineko proposamenak

Iturria: Geuk osatua

Txostenak erabilitako metodologia

Diziplina anitzeko metodologia bat erabili da analisia egiteko, eta proposamenaren erreferentzia-esparrura egokitu da, denboraren esparrua laneko 6 hilabetetan neurtuta eta ezarri diren 3 helburuekiko koherentziari eutsita. Horren guztiaren xede da Eusko Jaurlaritzak enpresak nazioartekotzeko darabilen politikaren ezagutza osoa izatea, ondasunen eta zerbitzuen esportazioaren eremuan eta enpresen kanpo-ezarpenaren eremuan.

Alde horretatik, eta lehenik eta behin, ikerketaren xede diren kontzeptu nabarmen hauetako agiri nagusiak aztertu dira: giza garapena, jasangarritasuna, politiken koherentzia eta enpresen nazioartekotzea.

Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak giza garapenaren, jasangarritasunaren eta politiken koherentziaren alorretan dituen erreferentziako dokumentuak aztertu dira, hala nola *Garapenerako Lankidetzarako 2014-2017 Plangintza Estrategikoa* (GLEA, 2015a), *Garapenerako Politiken Koherentzia Euskadin: diagnostikoa eta proposamenak* (GLEA, 2015b) eta, bereziki, *Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparrua* (Eusko Jaurlaritzak, 2016).

Azkenik, xehetasunez aztertu dira ENPren agiri estrategikoen multzoa, haren tresna nagusiak –dekretuak, deialdiak, baremazioak eta ebazpenak– eta enpresen nazioartekotzearen esparruan errepikatzen diren ekimenak. Askotariko testu horien guztien dokumentazio-azterketa egin ondoren, ikerlanaren oinarrizko jardun-ildoak ezarri ditugu.

Dokumentazio-azterketa hori osatzeko, elkarrizketak egin zaizkie Eusko Jaurlaritzaren ENP gauzatzen duten oinarrizko egituretako erreferentziatzko pertsoneri eta enpresa-eremuko pertsoneri. Elkarrizketak egin zaizkie, batik bat, ENPrekin lotura estuena duten bi eremu nagusiei –Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailari eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia–, politika horri paraleloan baina organikoki atxikita dauden eragileei, eta ENP hori osatzen dituzten tresna zehatzen onuradun diren erakundeei. Dokumentazioaren analisitik ondorioztatu direnak kontrastatzeko eta iruzkintzeko aukera eman digute elkarrizketek; gainera, diplomazia ekonomikoaren atalean (4.2. kapitulua) eta beste zenbait ataletan erabili diren inputen osagai nabarmen eta erabakigarria izan dira.

Honako egitura, erakunde eta pertsona elkarrizketatu dira:

- Eusko Jaurlaritzako Nazioartekotze Zuzendaritza. Ainhoa Ondarzabal (zuzendaria) eta Iñaki Ezkurra⁶.
- Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza. Leire Madariaga (zuzendaria)⁷.
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia. Paul Ortega (zuzendaria)⁸.
- Bilboko Merkataritza Ganberako Nazioartekotze saila. Mikel Arieta-araunabeña (zuzendaria) eta José Luis Gil⁹.
- Siderex (Asociación Española de Exportadores de Productos e Instalaciones Siderúrgicas) eta Fundigex (Asociación Española de Exportadores de Fundición). Joana Ibarrondo¹⁰.
- Walter Pack SL. Lorea Azcona¹¹.

6 Gasteizen egindako elkarrizketa, 2016-10-26an.

7 Gasteizen egindako elkarrizketa, 2016-10-25ean.

8 Bilbon egindako elkarrizketa, 2016-10-21ean.

9 Bilbon egindako elkarrizketa, 2016-11-16an.

10 Bilbon egindako elkarrizketa, 2017-01-25ean.

11 Igorren egindako elkarrizketa, 2017-01-27an.

Pentsatu zen SPRI sozietatearen nazioartekotze saileko zuzendari Miren Madinabeitiari elkarrizketa sakon bat egitea komeni zela, baina ezin izan zen harekiko harremana zehaztu.

Azkenik, prozesu parte-hartzaileagoak bultzatzeko eta enpresen nazioartekotzeari buruzko debateak zabaltzeko helburuak hartuta, kontrasteko gizarte talde bat sortu da, GGKEek, sindikatuek eta gizarte-ekonomiako erakundeek osatua. Hausnarketa kolektiboak egiteko aukera eman du talde horrek, baita ikerketan egindako aurrerapenak bateratzekoa ere¹², Euskadiko GGKEen Koordinakundeko lan-taldeekin egiten den zuzeneko komunikazioaz harago.

Finean, txostenak dituen molderako eta helbururako metodologia egokia erabili dela uste dugu, analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa uztartzen den aldetik; horrez gainera, debatea zabaltzen laguntzen du, askotariko gizarte-eragileen parte-hartzearen eskutik.

12 Honako hauek hartu dute parte kontrasteko gizarte taldean: ELA, LAB eta CCOO sindikatuek, REASEk eta Euskadiko GGKEen Koordinakundea.

I. Kapituluua. Erreferentzia-esparrua

Lehen kapitulu honen helburua da irizpide-esparru bat zehaztea, giza garapeneko eta jasangarritasuneko ikuspegi arabera ebaluatzeko Eusko Jaurlaritzak enpresak nazioartekotzeko sustatzen duen politikaren koherentzia-maila.

Horra iristeko, labor azalduko ditugu ikerketako hiru kontzeptu handien definizioa eta ezaugarri nagusiak: politiken koherentzia, giza garapen jasangarria¹³ eta enpresen nazioartekotzea.

Garapenerako politiken bilakaera eta egungo definizioa aztertuko dugu lehendabizi, eta berriaz adieraziko ditugu Eusko Jaurlaritzak alor horretan hartu dituen konpromisoak. Horren ondoren, giza garapen jasangarriaren (GGJ) indar-idea nagusiak azalduko ditugu, eta proposatutako erreferentzia-esparruko irizpideak adieraziko ditugu arau-oinarri horretatik abiatuta. Hirugarrenik, enpresen nazioartekotzearen adierazle teoriko eta politikoak aztertuko ditugu –aintzat hartuta egungo testuinguruan bereizgarri direla krisi globala, globalizazio neoliberala eta korporazioen boterearen hegemonia–, eta Eusko Jaurlaritzaren egoera zehatzari egokituta egingo dugu azterketa-lan hori. Azkenik, eta konklusio moduan, esparru bakar batean batuko ditugu hiru kontzeptu horiek, eta, GGJren indar-ideietatik abiatuta, ENPri lotutako irizpide batzuk zehaztuko ditugu, Eusko Jaurlaritzak jardun alor horretan egiten duen GPKa ebaluatzeko.

1.1. Garapenerako politiken koherentzia¹⁴

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (ELGE) bultzatuta, 90eko hamarkadan sortu zen garapenerako politiken koherentziaren (GPK) gaineko debatea, nazioarteko lankidetzaren esparruari lotuta. Lehendabiziko urte haietan, herrialde aberastuetako gobernuak bultzatutako garapenerako politika askotarikoek herrialde pobretuetan

13 Erreferentzia, subjektu eta logika diferenteak dituzte oinarrian bai giza garapenak, bai jasangarritasunak. Hala ere, ikuspegi osagarriak dira eta horrela ulertu da, oro har, nazioarteko lankidetzan –batik bat Eusko Jaurlaritzak bultzatutakoan–. Giza garapen jasangarria da osagarritasun horren erreferentzia-esparrua. Hemendik aurrera, kontzeptu hori erabiliko dugu txostenean. Edonola ere, bi ikuspegi artekotzeko harremana aztertzeko, ikusi Fernández, Piris eta Ramiro, (2013:67-77).

14 Eusko Jaurlaritzak berak emandako bi testuk luze eta zabal azaltzen dute garapenerako politiken koherentziaren kontzeptua: *Garapenerako politiken koherentzia Euskadin: diagnostikoa eta proposamenak* (GLEA, 2015b) eta *Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparrua* (Eusko Jaurlaritzak, 2016). Horrenbestez, kontzeptu hori ulertzeko elementu edo osagai nabarmenetako batzuk baino ez ditugu adieraziko atal honetan, eta estatuez azpiko eremuetan duten aplikazioari erreparatuko diogu. Edonola ere, horien gaineko jakintza handiagoa eskuratu nahi izanez gero, adierazi ditugun bi testuetara jotzea gomendatzen dugu.

zer-nolako eragina zuten aztertzea zen eztabaidaren muina; beraz, kanpo-esparruko ekimenekin (merkataritzakoak, finantzarioak, egiturazko doikuntzakoak, etab.) lotzen zen nazioarteko lankidetzaz.

Debate horretan eztabaidatutako ideietako bat zen batzuen garapen-xedeek kaltetu egin zitzaketela beste batzuen gizarte-eraldaketarako aukerak, eta, ondorioz, herrialde guztien kanpoko eta nazioarteko ekintzen koherentzia bermatzeko agendak eta egiturak sortu behar zirela –Hego Globaleko herrialdeen barneko garapen-politiken ildoari jarraituta¹⁵–, premisa eta helburu komunetatik abiatuta. Finean, GPKak, hasieran, nazioarteko lankidetzaz eta herrialde aberastuen kanpo-ekintzaz lotzen zituen, eta haren oinarritzako ikuspegia *do no harm* zen, hau da, ahalik eta kalte txikiena egitea eta herrialde pobretuen garapenari ahalik eta trabarik txikiena egitea (GLEA, 2015b).

Hala ere, bilakaera bat izan du GPKren hasierako buruera horrek eta zabaldu egin du begirada; izan ere, gero eta konplexua eta elkarren mendekoagoa den mundu batera, globalizazio neoliberalerako fasean dagoen mundura, egokitu nahian ari da. Hori horrela, kanpo-ekintzari lotuta zegoen GPKak bilakaera bat izan du, eta giza garapenaren eta jasangarritasunaren premisen inguruan biltzen da orain gobernuen kanpo-ekintzaz guztia, premisa horien bidez eta erantzukidetasunez erantzuteko erronka globalei. Garai batean *do no harm* ikuspegia zena *whole of government approach* ikuspegia da orain, hau da, zeharkako izaera ematen zaio giza garapen jasangarriari erakunde publiko ooren proposamen politiko orokorrean (GLEA, 2015b).

Horrenbestez, hau da, gaur egun eta funtsean, GPK kontzeptuaren esanahia: apustu instituzional bat, erronka global handiei aurre egin nahi diena, giza garapen jasangarriaren erreferentzia hartuta, bai gobernu bakoitzaren ekintzaz politiko orokorrean, bai gobernu horien mailaz mailako artikulazioan, xede edo helburu komunak lortze aldera.

Kanpo-ekintzak, beraz, funtsezko egitekoa du oraindik ere GPKan, baina ikuspegi integral eta inklusiboagoa du; izan ere, haren abiapuntuko premisa da ekintzaz politiko orok eragina duela erronka global horien gainean. Horrez gainera, nabarmendu behar da begirada zabalago hori ez dela politiketara soilik mugatzen, aintzat hartzen baititu eragileak ere. Estatuez gainera, alderdi anitzeko instituzioek eta estatuez azpiko erakundeek ere funtsezko zeregina dute beren eskumenen baitan.

15 Testuan zehar, bereizgabe erabiliko ditugu herrialde aberastuak/herrialde pobretuak terminoak (egoera horren sorburu izan diren prozesu historikoak agerrarazteko erabiliko ditugu) eta Ipar Globala/Hego Globala kontzeptuak (herrialde batzuen eta beste batzuen arteko asimetria askotarikoak nabarmentzeko erabiliko ditugu kontzeptuok, baina ez kokapen geografikoari lotuta soilik, "Hego" asko baitaude Iparrean eta "Ipar" asko Hegoan).

Toki-erakundeen egitekoa garrantzi handikoa izan daitekeela nabarmendu behar da, lurraldeak izaera estrategikoa baitu, bizi-eremu eta aukera askoren probaleku den aldetik. Ildo horretan sakontzen du Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziak GPKri buruz hitz egitean (GLEA, 2015b: 55):

"Garrantzi handiko eremua da, izan ere, onura eta galera publiko orokorrak kudeatzeko maila askotako gobernantza orokor baterantz jo nahi bada, beharrezkoa da tokiko eragileak eta gobernuak txertatzea nazioz haraindiko agendan, beren hurbiltasunagatik funtsezko osagaiak direlako garapen iraunkorraren sustapenean eta pobreziaren kontrako borrokan".

Horrela jokatuta, toki-eragileen partaidetza aktiboak duen garrantzia azpimarratzen da, eta, horrez gainera, adierazten da eragile horiek GPK gardenago eta parte-hartzaileago batean barneratzea komeni dela:

"Beharrezkoa da indartzea tokiko eragileek garapen orokorreko agendan betetzen duten zeregina, eta, gainera, gardentasun-prozesuak eta kontuak emateko prozesuak txertatu behar dira gobernuen legimititate demokratikoa handitzeko eta gizarte zibilarekiko harremana estutzeko" (GLEA, 2015b:55).

"Giza garapenarekin kritikoak eta konprometituak diren herritarrak funtsezko osagaia izan litezke gobernuen presioa egiteko, beren politika publikoetan GPK handiagoa aplikatu dezaten. Alderdi kritikoa da hori tokiko gobernuetan, herritarrengandik hurbilago dagoelako haien prestakuntzari eta hezkuntzari dagokionez" (GLEA, 2015b:57).

Finean, Eusko Jaurlaritzak berariaz hartu du garapenerako politiken koherentziarekiko konpromiso bat, ikuspegi integral, inklusibo, garden eta parte-hartzailea hartuta. Konpromiso horren berri ematen den *Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparruak*, 2016ko apirilaren 5ean onartuak.

Jaurlaritzak honela definitzen du Garapenerako Politiken Koherentzia (Eusko Jaurlaritzak, 2016: 3):

"Giza garapenaren eta jasangarritasunaren ikuspegia maila guztietako politika publikoen diseinuan, abiaraztean eta ebaluazioan txertatzea eta politika horien artean koordinatzea eta osatzea".

Hori horrela, hau bihurtzen da GPKa (Eusko Jaurlaritzak, 2016: 4):

"Gobernu-ekintzarako oinarritzko erreferentzia, barneko garapen-estrategiei zein kanpoko ekintzari edo bi alderdien arteko loturari dagokienez".

Eta hauxe da, hain justu, Eusko Jaurlaritzak kanpo-ekintzarako egiten duen apustua (Eusko Jaurlaritza, 2016: 9):

"Garapen-prozesuak eta herrialde batzuetan eta besteetan giza premiei erantzuteko aukera bateragarri egiteko beharra da. Herrialde bakoitzaren antolamendu ekonomiko eta sozialaren errespetuan oinarrituta, lurralde batean hartzen diren erabakiek beste lurralde batek ongizate-maila handiagoetarantz aurrera egiteko dituen aukerak ez kaltetzea lortu nahi da."

Alde horretatik, ohartarazten du tentsioan, eta, ziur asko, kontraesanean direla, alde batetik, hazkunde-eremu hegemonikoa eta lehiakortasuna –printzipio indartsu moduan hartuta–, eta, bestetik, ongizate orokorra:

"Eremu ekonomikoan ikus daitekeenez, gero eta kontraesan handiagoa dago hazkunde-ereduaren eta eredu horrek pertsona guztiei bizitzarako bitartekoak eskaintzeko eta bizi-maila duina bermatzeko duen ahalmenaren artean" (Eusko Jaurlaritza, 2016: 7).

"Politika publikoetan eta lankidetzaren guneetan izandako atzerapenak indartu egin ditu, gainera, nazioartean eragin negatiboa duten joera batzuk, hala nola lehiakortasuna balio absolutu gisa babestea, nozio horren edukia zehaztu eta argitu gabe, eta beste balio batzuekin (lankidetzarekin edo elkartasunarekin, adibidez) duen lotura azaldu gabe. Ikuspegi horretatik, gure ustez beharrezkoa da sustatu nahi den ereduaren ezaugarri bereizgarria den efizientzia sozial eta ekologikoaren babesean oinarritutako lehiakortasun bat sustatzea, zenbaitetan eskubideen murrizketan, pertsonen kolokatasun edo ziurgabetasunean edota baliabide naturalen suntsiketan oinarrituta dagoen merkatu-norgehiagokatzat hartu ordez" (Eusko Jaurlaritza, 2016: 11).



3. Irudia: Eusko Jaurlaritzaren GPK konpromisoak

- ... Giza garapena eta jasangarritasuna Jaurlaritzaren ekintzetan
- ... Berariaz erreparatzea kanpo-ekintzaren koherentziari
- ... Lurraldeen eta herrialdeen arteko elkarriketa eta elkarrekiko errespetua, guztien onuran oinarrituta
- ... Eredu ekonomiko hegemonikoa kuestionatzea
- ... Merkatuekiko lehiaren oinarritutako lehiakortasunaren kritika

Iturria: Geuk osatua

Azken buruan, Eusko Jaurlaritzak adierazi du giza garapen jasangarria izango dela bere gobernu-ekintzaren erreferentzia, eta gardentasunean eta gizarte zibilaren parte-hartzean oinarritutako eredu batekin gauzatuko duela ekintza hori. Horrez gainera, kanpo-ekintzaz ari denean, eta enpresen nazioartekotzearen gainean egiten ari garen analisiarekin zuzenean lotuta, planteatzen du ekintzaren xede den lurraldearen antolamendu ekonomikoa eta soziala errespetatu behar dela. Era berean, auzitan jartzen du eredu ekonomiko hegemonikoa, eta lehiakortasuna balio nagusia izatearen arriskuaz ohartarazten du.

1.2. Giza garapen jasangarria¹⁶

Giza garapenaren eta jasangarritasunaren arteko lotura aurreko mendearen 90eko hamarkadatik aurrera hasi zen lekua hartzen, arau-erreferentzia moduan, garapenerako agenda globalean. Alde horretatik, bi kritika uztartzen dira, ongizatearen (giza garapenaren) ikuspegitik egindakoa eta ingurumenaren (jasangarritasunaren) ikuspegitik egindakoa, auzitan jartzen baitira gizarte globalean hegemonia ageri duen eredia eta haren identitate-mantra, aurrerabidea garapenarekin eta garapena hazkunde ekonomikoarekin berdintzen dituen.

Nazio Batuen Garapen Programak (NBGP) giza garapen jasangarriaren (GGJ) definizio hau eman zuen, giza garapenaren kontzeptuaren sorreraren 20. urteurrenean (1990. urtean sortu zen kontzeptua):

"Pertsonak bizitza luzea, osasungarria eta sortzailea bizitzeko askatasunaren adierazpena; pertsonak balioestekoak iristen dituzten helburuak lortu nahi izatea; eta gogoz parte hartzea partekatzen duten planetaren garapen iraunkor eta ekitatezkoan. Pertsonak dira giza garapenaren bultzatzaile eta onuradun, bai gizabanako moduan, bai giza talde moduan" (NBGP, 2010: 24).

Giza garapen jasangarria, beraz, kritikoa da hazkunde ekonomikoaren ikuspegi jakin batekin, hazkundera garapenaren alfa eta omega moduan –eta garapenaren adierazle nagusi moduan– ikusten duen ikuspegiarekin, honako hau planteatzen baitu: *"pertsonek gaitasunean oinarritutako ebaluazio-eremu bat, eta ez gizarteak oro har dituen baliabideetan oinarritutakoa"* (Dubois, 2008: 36). Era berean, adierazten du arazoa ez dela, soilik, zer ondorio desegoki dakartzan garapen modu horrek, eta bai ikuspegi hori

16 Nazioarteko lankidetzaren erreferentziazko ikuspegietako bat da giza garapen jasangarria, bereziki lankidetzaren deszentralizatuaren dimentsioan eta, modu oso nabarmenean, Eusko Jaurlaritzarentzat. Ez dugu ikuspegi horren azterketa xehea egingo, haren indar-idea nagusiak nabarmenez mugatuko baikara. Azterketa xehe baten berri izateko, ikusi Fernández, Piris, Ramiro (2013:67-83), eta Eusko Jaurlaritzako plangintza estrategikoak eta zuzendariak (GLEA, 2015a).

orokortuz gero "bizia ezinezko bihur dezakeelako" (Sutcliffe, 1995: 7), gaur egun, tamalez, klima aldaketarekin eta energiaren egoerarekin ikusten dugun moduan.

Alde horretatik, hau da, Fernández, Piris eta Ramiro autoreen hitzetan, GGJren xedea (2013: 71):

"Bateratzea, alde batetik, pertsonen eta berorien gaitasunen zentralitatea –nazioei eta baliabideei ematen zaien lehentasunari aurre eginez– eta hurrengo belaunaldien bizi-baldintzak bermatzeko beharrezana. Xedea da, finean, garapena egungo belaunaldien eta geroko belaunaldien gaitasunaren ikuspegitik ulertzea".

NBGJren definiziora bueltatuta, paradigma-aldaketa egiteko, ezinbestean aldatu behar da baliabideen eta herrialdeen paradigmatik gaitasunen, pertsonen eta jasangarritasunaren paradigmara, eta, horrez gainera, zenbait identitate-elementu baliatu behar dira, GGJren indar-ideia nagusiak izateko:

- Pertsona guztien ongizatea/gizakiaren zentralitatea: Gizakiak izan behar du, maila indibidual eta kolektiboan, garapen-prozesu ororen subjektu protagonista eta azken xede edo helburua; horrenbestez, guztien onurak izan behar du garapenaren alorrean egindako ekimen politiko ororen oinarritzko printzipioa. Horrek esan nahi du, lehenik eta behin, baztertu egin behar direla gizakien ongizatea ondorio moduan, eta ez berezko helburu moduan ulertzen dituzten ikuspegiak –hori egiten du, hain zuzen, eredu hegemonikoak, hazkunde ekonomikoaren ondorio gisa ikusten baitu gizakien ongizatea–, hau da, baztertu egin behar direla premisa eta helburuak eskubideen nazioarteko esparruaren kontrako norabidean jartzen dituzten ikuspegiak. Bigarrenik, garapenak zuzenbideko eta politikako alderdiak dituela onartu behar da, eta alderdi horien gaineko ikuspegiak aldatu egiten direla kulturatik kulturara, beraz, ezin da balizko dogma bakarrik ezarri. Eta, azkenik, horrek esan nahi du ez direla analisi partzialak lehenetsi behar, eta analisi zabalak egitea komeni dela, lankidetzan eta osagarritasunean eragingo duten jarduera politikoetan oinarritutakoak, eta ez lehia oinarritutako politikan.
- Jasangarritasuna: Gizarte-antolamenduko ereduaren azpisistema bat baino ez da errealitate ekonomikoa, eta azken hori, era berean, sistema ekologikoarena. Garapena gertatzeko modu bakarra da ekonomiak eta gizarteak planetaren muga fisikoak onartzea, eta, ondorioz, energiaren, materialen eta hondakinen zikloen fluxuan txertatzea bata zein bestea. Tamalez, gaur egungo egoera oso urrun dago egoera horretatik, eta gero eta agerikoagoa da hazkunde ekonomikoaren eta GGJren arteko kontraesana. Ondorioz, premiazkoa da eredu osorik birpentsatzea, klima aldaketaren arazoari heldu eta behar den trantsizio energetikoa egiteko, bestelako jokamoldeak baliatuta: kontsumo apalak eta arduratsuak, aurrezpena, energia berriztagarrien sustapena, konpromiso lotesleak, merkatuen eta irabazi asmoen desplazamendua, etab.

- Gaitasunak/ahalduntzea: Gaitasunak analisi-zentroan indartzea bideratzen du GGJk, ez ditu estatu-nazioek dituzten baliabideak posizionatzen. Horrek esan nahi du begirada berria, zabala eta dimentsio anitzekoa, egiten duela, eta garapenaren barruan hartzen dituela eremu politikoa, ekonomikoa, kulturala, soziala, sexuala, psikologikoa eta beste hainbat eremu. Bigarrenik, aintzat hartzen du geure bizitzak amaiera dutela eta zaugarriak garela, eta ondorioz, logika indibidualistaz gain, ikuspegi kolektiboari begiratzen dio, eta erakundeen, komunitateen eta herrien gaitasunak indartzen ahalegintzen da. Hirugarrenik, ahalduntzeko prozesu progresiboa, aurrez zehaztu gabea eta dinamikoa darabil, mendekotasuneko eta asimetriako harremanez jabetzeko eta harreman horiek eraldatzeko. Azkenik, garapenaren ikuspegi honek dimentsio guztietan indartu nahi ditu gaitasunak eta, guztien onura iritsi nahi duen aldetik, ezinbestean partekatu behar ditu helmugak, elkarrekiko trukeak sustatu behar ditu, eta elkarrizketa horizontal eta jarraituko egiturak baliatu behar ditu.
- Parte-hartzea: Gizakia erdigunean jarriko baldin bada, eta aurrera egingo baldin badu ezarritako arau-erreferentzietan eta ahalduntze-prozesuetan, nahitaezkoa da premisa demokratiko sendo bat izatea eta pertsonak eta herriek beren geroa erabakitzeko gaitasunak izatea, bereziki, beraien bizitzetan eragina duten alderdien gainean. Horrenbestez, GGJren premisa eta helburua da parte-hartzea, baita haren osagai besterenezina ere. Alde horretatik, ezinbestean indartu behar da egungo demokrazia ahuldua, demokrazia zuzen eta parte-hartzaileko ekimenak eta sistemak bultzatuta.
- Ekitatea: Desberdintasun ekonomikoak, generokoak, arraza edo etniakoak eta bestelakoak lantzea da ikuspegi horren erronka handienetako bat, analisiaren erdigunean guztien onura eta gizakia jartzen dituen aldetik. Kasuan kasu bizi dugun egoeraren eta betetzen dugun lekuaren arabera izaten da simetria horien eragina; beraz, askotariko estrategiak izan behar dira berariaz eragiteko asimetria horien gainean, helburu politiko argietatik abiatuta. Premisa horretatik abiatuta, lehentasun estrategikoa da aberastasunaren birbanaketari (aberastasunak, baliabideez gain, bizitzeko oinarri materiala adierazi behar du, hau da, ondasun komunak, zerbitzu eta ondasun estrategikoetarako sarbidea eta horien kontrola, etab.) eta lanaren birbanaketari ekitea (lana ere ikuspegi zabal batekin ulertu behar da, bizitzari eusteko behar diren zereginen multzoa den aldetik, eta generoko asimetriak zuzentzea izan behar du bere helburua; horretarako, ikuspegi globala eta dekoloniala izan behar du, lanaren nazioarteko banaketarekin amaitzeko).

Finean, ikuspegi alternatiboa da GGJ, kritikoa garapena eta hazkunde ekonomikoa paretzen dituen eredu hegemonikoarekin; izan ere, ikuspegi horrek lehentasuna ematen dio hazkunde ekonomikoari, eta, askotariko desberdintasunak handitzeaz gain, ingurumen-krisi larri bat eragin du. Eredu hegemonikoak gailendu egiten ditu hazkunde ekonomikoa, indibidualismoa eta baliabideak, gaitzerdi dira harentzat desberdintasunak, eta intentsitate

apaleko demokrazia batekin konformatzen da; aitzitik, bizitza erdigunean jartzea proposatzen du giza garapen jasangarriak, guztien onura lehenestea, eta indarra ematea gaitasun individual eta kolektiboari, ekitateari eta parte-hartze aktibo eta kalitatezkoari.



4. Irudia: Giza garapen jasangarriaren indar-ideiak

- ... Guztien ongizatea/gizakiaren zentralitatea
- ... Jasangarritasuna
- ... Gaitasunak/ahalduntzea
- ... Parte-hartzea
- ... Ekitatea

Iturria: Geuk osatua

Giza garapen jasangarriaren kontzeptuaren indar-ideia horiek emango dute, Eusko Jaurlaritzak politiken koherentzian azaldu dituen konpromisoen baitan, enpresak nazioartekotzeko politika ebaluatzeko irizpideak zehazteko bidea. Kapitulu honen amaieran azalduko ditugu irizpide horiek.

1.3. Enpresak nazioartekotzeko politika

Puntu honek berebiziko garrantzia du txostenaren erreferentzia-esparrua zehazteko lanean, eta, ondorioz, bi zatitan banatuko dugu. Enpresak nazioartekotzeko politikaren kontzeptua mugatuko dugu lehen zatian, eta jarduera-eremuak eta tresna nagusiak zehaztuko ditugu, berariaz egokituta aztertzea dugun subjektuari.

Bigarren zatian, egungo testuinguruan kokatuko dugu ENPa. Testuinguru horretan, botere-asimetria handiak ikusten dira herri eta komunitateen eta merkatu eta enpresa handien artean; izan ere, globalizazio neoliberalak protagonismo osoa eman dio botere korporatiboari indarrean den gizarte globaleko eremuan. Finean, azalduko dugu zer den ENPa krisi-garai hauetan eta zer egoerari erantzuten dion; hori horrela, desberdintasun ekonomiko, kultural, politiko eta juridiko handien esparruan aztertuko dugu, ENPa ez baita haiekiko arrotz edo neutroa.

1.3.1. Definizioa: eremuak eta tresnak euskal esparruan

Politika ekonomikoak erdira ekarri dira krisiari aurre egiteko tresna moduan eta, ildo horretan, gero eta sistematizazio handiagoz lantzen da nazioartekotzea; hala ere, zentzu

hertsian, ezin daiteke esan enpresak nazioartekotzeko politika bat dagoenik, logika inklusibo bat jarraitzen baitu politika horrek, politiken mosaiko moduan elkarreraginez:

"Enpresak nazioartekotzeko prozesuetan, ekimen publiko ugari izan daitezke erabakigarri eta ekimen horiek tresna askotarikoak baliatuz eta eremu politiko askotarikoetan gauza daitezke; ondorioz, esan daiteke, izatez, enpresak nazioartekotzeko politika bat dagoenik. Nazioartekotzeko politiken mosaiko bat dela esan daiteke, eragin handiena duten eremu politikoez eta gai-alderdiek osatua" (Pérez, 2015: 12).

Alde horretatik, ENPa erakunde publikoek bultzatutako politiken, neurrien eta ekimenen multzoa dela ulertu behar dugu, baldin eta horien xedea enpresak nazioarteko merkatuen lurralde jakinetara sartzea, horietan finkatzea eta beren jarduera zabaltzea baldin bada. Hori horrela, hiru eremu nagusi nabarmen ditzakegu: ondasun eta zerbitzuen esportazioari emandako laguntza, atzerri-inbertsio zuzenari emandako laguntza eta atzerriko inbertsioak erakartzea norberaren lurraldera.



5. Irudia: ENPren 3 eremuak


- ... Laguntza ondasunen eta zerbitzuen esportazioari
- ... Atzerri-inbertsio zuzena (AIZ)
- ... Atzerri-inbertsioak erakartzea norberaren lurraldera

Iturria: Geuk osatua

Nazioartekotze ekonomikoaren logikan kokatzen dira hiru eremuak, baina bakoitzak bere izaera du. Esportazioei eta ezarpenei ematen zaien laguntza kanpo-markatuetan lehiatzeko bidetik gauzatzen da –estrategia beraren fase jarraituak direla ulertzen da–, baina hirugarren eremua kontrako bidetik ulertzen edo formulatzen da, norberaren lurraldera erakartzen baitira atzerri-inbertsioak, enplegua sortzeko eta biderkatze-efektua sortzeko tokiko egitura ekonomikoan. Era berean, hiru kategoriatan antola daitezke 3 eremu horiek sustatzeko erabili ohi diren tresnak: diru-laguntzen ildoak, diplomazia ekonomikoa eta jarduten duten eragileen gaitasunak indartzeko estrategia askotarikoak, batik bat ENPa abian jartzen duen lurraldean.



6. Irudia: ENPren tresnak



Iturria: Geuk osatua

Inbertsioak erakartzeko eremua alde batera utzita –adierazi dugu txosten honen sarrerako hitzetan ez dela hori txostenaren aztergai eta eduki–, 3 tresna horien gauzapena dakarten ekimen batzuk nabarmentzen dira, esportazioaren eta enpresen kanpo-ezarpenaren alorrekoak.



7. Irudia: ENPren esparruak, tresnak eta ekimenak

Eremuak	Tresnak	Ekimenak
<ul style="list-style-type: none"> • Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa laguntzea 	Diru-laguntzen ildoak	Kredituko eta kreditu-aseguruko programak; ezarpenen lehen urratsak laguntzea; alderdi anitzeko lizitazioetarako sarbidea; klusterretarako sarbidea, etab.
<ul style="list-style-type: none"> • Atzerri-inbertsio zuzenen bidez laguntzea kanpo-ezarpenak 	Diplomazia ekonomikoa	Kanpoko enbaxada eta/edo delegazioen eragin politikoa; misio komertzialak eta/edo inbertsioak; kontsulta eta/edo aholkularitza publiko-pribatua, etab.
<ul style="list-style-type: none"> • Atzerri-inbertsioak erakartzea lurraldera 	Jatorrian indartzea enpresen gaitasunak (finantzarioak, giza gaitasunak, teknologikoak eta instituzionalak)	Fiskalitatea, mintegiak eta formakuntza programak, I+G+b, etab.

Iturria: Geuk osatua

Finean, enpresak nazioartekotzeko kontzeptua osatzen duten politiken mosaikoa mugatzen eta integratzen laguntzen digu *esparru-tresna-ekimen* logikak.

Hala ere, adierazi dugun moduan, ENPa bultzatzen duen erakunde publiko bakoitzaren eskumenetara eta gaitasunetara egokitu behar da esparru orokor hori. Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzaren egoerari begiratuta, esan behar da erakunde horrek ez duela merkataritza-

politikaren gaineko eskumena –Europar Batasuna da eskumen horren titularra–, ezta kanpo-gaietako ere –estatu espainiarraren eskumen esklusiboa da– beraz, jarduera-esparru mugatua du.

Hala ere, badu jarduteko tarterik aztertutako bi eremu estrategikoetan, eta ekimenak abia ditzake eskura dauden 3 tresna motetan:

- Lehendabizi, diru-laguntzen 4 ildoen sustapena (Global Lehian, Gauzatu kanpo-ezarpenak, Interlehian eta Elkartzen);
- Bigarrenik, merkataritza-misioen bidez bideratzen da diplomazia ekonomikoa, herrialde-nazioartekotzeko planak eginez, foro eta gune europarretan parte hartuz, eta SPRI sozietateak eta merkataritza-ganbarek egiten dituzten aholkularitza-tzako eta eragin publiko-privatuko ekimenen bidez.
- Azkenik, enpresen gaitasunak indartzeko tresnaren gauzapena bideratzeko, enpresak nazioartekotzearen alorreko adituak prestatzeko programak eta norberak duen giza kapitala dinamizatzeko programak egiten dira.



8. Irudia: Eusko Jaurlaritzaren ENPren esparruak, tresnak eta ekimenak

Eremuak	Tresnak	Ekimenak
<ul style="list-style-type: none"> • Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak laguntzea • AIZ bidezko kanpo-ezarpenak laguntzea 	Diru-laguntzen ildoak	<ul style="list-style-type: none"> • Global Lehian • Gauzatu kanpo-ezarpenak • Interlehian • Elkartzen
	Diplomazia ekonomikoa	<ul style="list-style-type: none"> • SPRIren eta merkataritza-ganbaren jarduerak eta zerbitzuak • Misio komertzialak • Herrialde-plangintzak: Euskadi-Mexiko plangintza estrategikoa
	Jatorrian indartzea enpresen gaitasunak	<ul style="list-style-type: none"> • BEINT nazioartekotze-bekak • Global Training beka • PROFEX • LANdhome • Basque Global Network

Iturria: Geuk osatua

Hori izango da, beraz, gure txostenaren analisi-eremua, 2 jardun-eremu estrategikotan ardatzua (ondasunen eta zerbitzuen esportazioa eta euskal enpresen kanpo-ezarpena), eta

bere eskumen-mailara egokitutako 3 tresna erabiliko dituen (diru-laguntzak, diplomazia ekonomikoa eta jatorrian indartzea enpresen gaitasunak), tresna horien baitako ekimen askotarikoen bidez.

1.3.2. Testuingurua: globalizazioa eta botere korporatiboa

Dimentsio ugariako krisi baten testuinguruan gauzatzen da gaur egun enpresak nazioartekotzeko politika. Globalizazio neoliberalerako prozesuak handitu egin du krisi hori, eta botere korporatiboa bilakatu da gizarte globaleko eredu hegemonikoaren protagonista. Ez da, zentzu horretan, politika bat gehiago; aitzitik, botere korporatiboak krisiari aurre egiteko bultzatu duen bidea dela ulertzen da oro har, eta horrek indartu egin du agenda neoliberalra, merkatuen eta baliabideen gaineko lehia oinarrituta. Horregatik guztiagatik da garrantzitsua aztertzea zer egiteko betetzen duen gaur egun eta zer-nolako bidea hartzen ari den boterearen egungo banaketa asimetrikoa.

Hori horrela, une kritiko bat bizi du gizateriak eta planetak; izan ere, gero eta handiagoak dira desberdintasunak, eta kezka eragiten dute klimaren eta energiaren bilakaerak. Horrela adierazi du Eusko Jaurlaritzak:

"Gizateria eta planetako bizitzaren jarraipena bera, gaur egun ezagutzen dugun moduan, egoera zail baten aurrean dago gaur egun. (...). Desberdintasunak arazotzen ari dira, herrialdeen barruan zein herrialdeen artean. Desberdintasun ikaragarriak daude aukerei, aberastasunari eta botereari dagokionez. Generoen arteko desberdintasuna funtsezko erronka da oraindik ere" (Eusko Jaurlaritzak, 2016:3).

Indarrean den globalizazio neoliberalerako prozesua da egoera orokor honen sorburua, garapenerako eredu hegemoniko bat –etekinaren gailentasunean, irabazietan, merkatuetan eta hazkunde ekonomiko mugagabearen oinarritzen dena– errepikatzen eta handitzen duen aldetik. Eredu hori baztertzaila eta jasangarritasunik gabekoa dela frogatu da, eta, gaur egun, ez da ziurra etorkizunean erabiltzeko modukoa izango ote den. ELGE bereak aurreikusi du hazkunde ekonomikoa oso apala izango dela 2060ra arte gutxienik (ELGE, 2014).

Egoera kritikoa bizi dugu beraz, eta biziaren alde egiteko premiak bultzatuta, presazko erabakiak hartu beharrean gara, indarreko ereduak beste balio batzuetan oinarrituta birdefinitzeko; bien bitartean, lehen adierazitako balioei eusten diete inertzia hegemonikoak, eta horrek handitu egiten du lurraldeek, estatuak eta enpresek gainbeheran doazen merkatuetan sartzeko eta gero eta agorragoak diren baliabideak kontrolatzeko darabilten lehia.

Eta, globalizazioaren fasean pilatu duten botereak, inoizko handienak, bultzatuta, korporazio handiak dira agenda hegemoniko horren bultzatzaile nagusiak. Botere korporatiboa dela diogu, kontzeptu horrek ez dituelako soilik, eta eragile ekonomikoak diren aldetik, enpresa

handiak biltzen; izan ere, enpresa handiek pilatutako botere ekonomiko, kultural, politiko eta juridiko itzela adierazten du botere korporatiboaren kontzeptuak. Honako lau ezaugarri bereizgarri hauek mugatzen dute hegemonia korporatiboaren kontzeptua:

"Lehenik eta behin, korporazioek ekonomiaren gune neuralgikoaren kontrola dute, merkatuen eta kate globalen bidez; bigarrenik, korporazioak, iruditeria kolektiboan, aurrerabidearekin eta arrakastarekin lotzen dira eta irudi hori gailentzen da; hirugarrenik, intentsitate apaleko demokraziak beren neurrira birdefinitzeko gaitasuna dute korporazioek, eta botere politikoa behin betiko geratzen delarik ekonomikoaren mendean; eta, laugarrenik, inpunitatearen egitura baten ezarpena nabarmentzen da, Zuzenbide Korporatibo Globalen, lex mercatoria moduko batean oinarrituta, giza eskubideen eta naturaren gainean kokatzen dena eta esparru juridikotik ixten duena enpresa handien aldeko "botere-zirkulua" (Fernández, 2016).

Pilatutako botere politiko-juridikoari begiratuta, nazioz gaindiko enpresen, enpresa horien jatorriko estatuen, inbertsioak hartzen dituzten estatuen eta erakunde aldeaniztunen interesak elkartzeko bidea eman du gainbeherako merkatu baztertzailetan sartzeko lehiak. Hori horrela, erakunde aldeaniztunek –lobbien eraginpean– sortzen dituzte araudi globalak eta enpresen aldeko egitura erabakitzaileak. Bigarrenik, nazioz gaindiko enpresen jatorriko estatuek enpresen xedearekin lotzen dute beren xedea, eta babes diplomatikoa ematen diete, nazioartekotzeko politiken bidez, kreditu bigunak emanez eta, behar baldin bada, laguntza militarra emanez. Eta, azkenik, enpresen ezarpenak hartzeagatik lehiatzen dira inbertsioen hartzaile diren estatuak, eta beren lehiatzeko modua da eskubideen murrizketak desarautzea, logika neoliberalen ildotik aldatuz beren legediak. Finean, interesak batuko dituzten egiturak sortzea da horren guztiaren helburua, lehiakortasun gero eta handiagoa erdiesteko.

Eta botere politiko hori eremu juridikora igarotzen da *lex mercatoria* (Hernández eta Ramiro, 2015) bat ezarriz giza eskubideen nazioarteko esparruan. Horrela jokotuta, nazioz gaindiko enpresek Zuzenbide Korporatibo Global berria ezartzea lortu dute, giza eskubideen eta estatuen jardun politikorako gaitasunaren beraren gaintetik kokatzen dena; hala, inpunitatearen aldeko egitura bat osatu da, korporazio horien interesen alde (Hernández eta Ramiro, 2016; Teitelbaum, 2010). Horrenbestez, *lex mercatoria* horrek formatuen tipologia askotarikoa du, hala nola merkataritzaren eta inbertsioen alorretan indarrean diren 3.000 tratatu eta hitzarmen global, eskualdeko eta aldekoak, erakundeek korporazio handiekin egiten dituzten kontratuak, egiturazko doikuntzak egiteko plangintzak eta mailegu baldintzatuak.

Araudi korporatibo horrek inbertsioen segurtasunaren gailentasuna ezartzen du, arau bilakatua giza eskubideen aurrean, eta dinamika horretatik, era berean, arbitraje-egitura berriak sortzen dira estatuen eta korporazioen arteko gatazketarako, sistema judizial publikoetatik apartekoak eta/edo horiei gainjarritakoak. Horrela jokotuta, gatazkek erabakitzeko gune

pribatuak sortzen dira, hala nola Munduko Merkataritza Erakundearen Gatazkak Konpontzeko Sistema, Munduko Bankuaren Inbertsioen gaineko Diferentziak Erabakitze Nazioarteko Zentroa, Hayako Nazioarteko Auzitegia eta Nazioarteko Merkataritza Ganbararen Nazioarteko Arbitraje Gortea, eta enpresa handiak dira horietara jo dezaketen bakarrak. Horrenbestez, zuzenbide publikoko subjektuak eta zuzenbide pribatuko subjektuak berdintzeaz gain, berme handiagoak ematen zaizkie azken horiei, eta, adierazi dugun moduan, irabazi-asmoa lehenesten da, interes orokorraren gainetik.

Esparru politiko-juridiko berri horren azken emaitzak blindatu egiten ditu enpresen eskubideak, eta lausotu egiten ditu haien betebeharrak. Alde horretatik, zuzenbide indartsua, aginduzkoa, hertsapenezkoa eta exekutiboa da *lex mercatoria*, eta zuzenbide ahul bat betetzera mugatzen dira enpresen betebeharrak. Esparru hori osatzen da, lehenik eta behin, herrialde hartzaileen araubide nazionalen indarrez –desarauketa neoliberalaren testuinguruan egiten ematen dira araubide horiek, eta erantzukizunak ez dira gune korporatibora zabaltzen lurralde horietatik kanpo–. Bigarrenik, giza eskubideen nazioarteko esparruari galdagarritasuna ukatzen zaio, soilik estatuei aplikatzekoa izan dadin –esparru hori errespetatzea baino ez dagokie enpresa handiei–. Eta hirugarrenik, borondatezko izaeraren, alde bakartasunaren eta izaera loteslerik gabekoaren logika zabaltzen da nazioartean korporazioen gizarte-erantzukizunean, horren alde egiten baitute Itun Globalak eta Enpresen eta Giza Eskubideen alorretan egun indarrean diren Nazio Batuen Printzipio Zuzentzaileak (Ramiro, 2009). Finean, inoizko botererik handienaren gainean oinarritzen da korporazio handien eta berorien agendaren boterea, eta botere hori eragile askoren partaidetza duen esparru politiko batean finkatzen da, asimetrikoak izanda *lex mercatoriaren* eta giza eskubideen arautzeak.

Testuinguru horretan eta botere asimetrikoko egitura horretan txertatzen da enpresak nazioartekotzeko politika. Horrez gainera, botere korporatiboak merkatuengatik eta baliabideengatik lehiatzeko egin duten apustuan datza haren sorburua, eta apustu hori egin da, hasiera batean, erronka globalek une historiko honetan eskatzen dituzten eraldaketen gainean hausnartu gabe. Abiapuntua hori izanda, ez dirudi ENPa biziaren defentsarako edo babeserako tresna izan daitekeenik, baina, izan al daiteke?; planteatu al daiteke giza garapen jasangarriaren erreferentzia egiazkoa izango duen ENPriki?

Sarreran adierazi dugun moduan, debate estrategiko horren adierazpen soila egingo dugu, eta gure lan nagusia izango da aztertzea eta proposatzea zer egin behar den hori horrela izateko. Bide horretatik, egokitasunaren debatean sartuko gara. Horrenbestez, txosten honek honako proposamen hau planteatzen du: nola birdefinitu behar da politika bat erronka globalei aurre egiteko eta interdependentziak, elkarrizketa horizontalak eta elkarrekiko truke onuragarriak indartzeko, baldin eta politika horren xedea lurralde bateko enpresak kanpo-merkatuetan duten sarbidea handitzea baldin bada eta lehiaren eta lehiakortasunaren printzipioetan oinarritu baldin bada? Planteamendu horretatik abiatuta, egingarria den ala ez baloratu behar litzateke.

Ikuspegi horretatik abiatuta, 2 indar-ideia nabarmentzen ditugu ENPren eta testuinguru globalaren gainean. Alde batetik, *ENPk ezin die ezikusirik egin biziaren sustengarritasunak dakarren arazo larriari eta desberdintasunen handiagotze-dinamikari*, beraz, politika hori zehaztuko eta inplementatutako duten parametroek aintzat hartu behar dituzte guztien ongiaren defentsa, energiaren alorreko trantsizioa, berdintasunaren aldeko langintza, erantzukidetasuna eta gaitasunak indartzeko jarduera elkarrekikoak. Bestalde, *enpresen aldeko asimetria juridikoa nabarmena den aldetik, alderantzikatu egin behar da egoera hori, eta ENPren lerratzea izan behar du horren eragileetako bat*. Alde horretatik, ez da nahikoa nazioarteko legedia eta eragiketen hartzailerak diren herrialdeetako arauak –logika neoliberalaren baitakoak– betetzea; aitzitik, funtsezkoa da giza eskubideen nazioarteko esparru indarrekoaren aldeko konpromisoa hartzea eta esparru hori ekintzarako abiapuntutzat hartzea.

1.4. Enpresen nazioartekotzea politiken koherentziaren ikuspegitik aztertzeko irizpideak

Amaitzeko, gure erreferentzia-esparruko hiru elementu nagusiak (politiken koherentzia, giza garapen jasangarria eta enpresak nazioartekotzeko politika) uztartuko ditugu; horretarako, eta giza garapen jasangarrian oinarrituta, taula batean irudikatuko dugu uztartze hori, ENPren gauzapena ebaluatzeko irizpideak zehazteko.

Lehen abiapuntua da Eusko Jaurlaritzak bere ekintza politiko guztiaren, eta, bereziki, kanpo-ekintza politikoaren GPKren alde adierazitako konpromisoa. Gardentasunean eta parte-hartze sozialean oinarritutako GPK da, eta auzitan jartzen ditu eredu ekonomiko hegemonikoaren arabera zehaztutako politikak eta lehiakortasuna printzipio nagusi moduan lehenesten duen eredu; horrez gainera, adierazten du elkarrizketa horizontalerako eta elkarren gaitasunak trukatzeko espazioak sortu behar direla lankide diren lurralde eta herrialdeekin.

Bigarren lekuan, giza garapenaren eta jasangarritasunaren aldeko apustuari begiratuko diogu, ikuspegi kritikoak, biak ere, hazkunde ekonomikoa gizarte globaleko ereduaren balio nagusietako bat izan behar duela adierazten duten ildoekin. Giza garapenaren eta jasangarritasunaren ereduak atzean utzi nahi du baliabideen eta herrialdeen logika, eta gaitasun eta indibidualak eta kolektiboak indartu nahi ditu, eta balioa eman honako kontzeptu hauei: guztien ongizatea/gizakiaren zentralitatea, jasangarritasuna, gaitasunak/ahalduntzea, parte-hartzea eta ekitatea.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren enpresak nazioartekotzeko politika aztertuko dugu bi esparru estrategikotan (esportazioa eta kanpo-erazpena). Politika hori 3 tresnarekin bideratzen da: diru-laguntzak, diplomazia ekonomikoa eta jatorriko enpresa-gaitasunak indartzea. Politika hori krisi globaleko testuinguru batean gertatzen da, botere korporatiboaren hegemonia nagusitzen den garaian; beraz, politika hori ez da neutroa izango, baldin eta giza garapenaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik ekin nahi baldin baditu erronka globalak.

Eusko Jaurlaritzaren GPKren alorreko konpromisoen erreferentzia hartuta eta irizpideak GGJren indar-ideien arabera ordenatu ondoren, erreferentziarako 18 irizpide proposatzen ditugu guztira, EAEko gobernuaren ENPa aztertzeko.



9. Irudia: Erreferentzia-esparruko 18 irizpideak

GGJ-ren indar-ideiak	Irizpideak
Ongizatea-gizakiaren zentralitatea	<p>1. Kokapenean, <i>helburuak, printzipioak eta konpromisoak loturik dira guztien onurarekin, giza eskubideekin eta jasangarritasunarekin</i>, eta balio horiek lehiakortasunaren eta errentagarritasun ekonomikoaren gainetik daude ENPren alderdi hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Agiri estrategikoak • Lehentasun geografikoak • Tresnak arautzeko dekretuak • Deialdietako baremazio-taulak • Askotariko jarduerak (misio diplomatikoak, prestakuntza-prozesuak, etab.) <p>2. Agenda, egitura eta sistema espezifikoak izatea bultzatutako ekimenen eta prozesuen <i>eraginaren ebaluazio parte-hartzailea</i> egiteko.</p>
Jasangarritasuna	<p>3. Bultzatzen diren herrialde-plangintzek, baremazio-taulek eta ekimenek, jatorrian eta xedeko lurraldean, <i>jasangarritasunerako eta trantsizio energetikorako klausulak</i> eta jarraipen-sistemak izango dituztela bermatzea.</p> <p>4. Bultzatutako ekimen oroko <i>ingurumen-inpaktuko azterketa</i> eta jarraipen-sistemak izango dituztela bermatzea.</p>

GGJ-ren indar-ideiak	Irizpideak
Gaitasunak-ahalduntzea	<p>5. Honako alderdi hauetan, <i>elkar indartzeko eta gaitasunen truke horizontala egiteko prozesuen alde</i> apustua egitea ENPren jatorriko lurraldearen eta xedeko lurraldearen artean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Agiri estrategikoak • Lehentasun geografikoak • Tresnak arautzeko dekretuak • Deialdietako baremazio-taulak • Askotariko jarduerak (misio diplomatikoak, prestakuntza-prozesuak, etab.) <p>6. Bultzatzen diren herrialde-plangintzek, baremazio-taulek eta ekimenek <i>xedeko lurraldeko lehentasun estrategikoak</i> eta helburu nagusiak betetzen dituztela eta jarraipen-sistemak izango dituztela bermatzea.</p> <p>7. Bultzatzen diren herrialde-plangintzek, baremazio-taulek eta ekimenek <i>tokiko egitura produktiboan eta tokiko zerbitzu publikoetan eragin onuragarria</i> dutela eta eragin hori balioesten dutela bermatzea eta horien jarraipena egiteko sistemak izango direla ziurtatzea.</p> <p>8. Bultzatzen diren herrialde-plangintzek, baremazio-taulek eta ekimenek <i>teknologia egokiko eta transferentzia teknologikoko formulak</i> dituztela eta horrelakoak balioesten dituztela bermatzea eta horien jarraipena egiteko sistemak izango direla ziurtatzea.</p> <p>9. Bultzatzen diren herrialde-plangintzek, baremazio-taulek eta ekimenek <i>tokiko prestakuntzarako</i> formulak dituztela eta horrelakoak balioesten dituztela bermatzea eta horien jarraipena egiteko sistemak izango direla ziurtatzea.</p> <p>10. Bultzatzen diren herrialde-plangintzek, baremazio-taulek eta ekimenek, jatorrian eta xedeko lurraldean, <i>enplegu duinaren eta sindikatu-askatasuneko, negozioazio kolektiboko eta grebako eskubideen hazkunde garbia</i> eragiteko klausulak dituztela eta horrelako neurriak balioesten direla bermatzea eta horien jarraipenerako sistemak izango direla ziurtatzea.</p> <p>11. Bultzatzen diren herrialde-plangintzek, baremazio-taulek eta ekimenek <i>inbertsio egonkorak, irmoak eta epe luzekoak egiteko klausulak eta, etekin aberriratzearen aurretik, berrinbertsioak</i> lehenesteko klausulak dituztela eta horrelako neurriak balioesten direla bermatzea eta horien jarraipenerako sistemak izango direla ziurtatzea.</p>

GGJ-ren indar-ideiak	Irizpideak
Parte-hartzea	<p>12. Bultzatzen diren herrialde-plangintzek, baremazio-taulek eta ekimenez, jatorrian eta xedeko lurraldean, <i>lana eta erabakiak modu demokratikoan hartzea</i> lehenesten dituzten enpresa-ekimenez aldeko klausulak eta horien jarraipena ziurtatzeko sistemak izango dituztela bermatzea.</p> <p>13. <i>Bultzatzen diren herrialde-plangintzek eta ekimenez –batik bat, kanpo-ekintzako misioek–</i> giza garapenerako eta jasangarritasunerako agenda-elementuak izango dituztela bermatzea eta ziurtatzea gizarteko eta sindikatuetakoa erabileren kopuru nahiko eta adierazgarri bategi parte-hartze aktiboa duela.</p> <p>14. Koordinazioko euskal egitura bat sustatzea, eta egitura horrek ENP guztiaren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa egiteko <i>gaitasun politiko nahikoa izatea</i>.</p> <p>15. ENPa koordinatzeko euskal egitura inklusibo bat bultzatzea, eta egitura horretan modu aktiboan parte hartzea <i>gizarteko eta sindikatuetakoa erabileren kopuru nahiko eta adierazgarri batek</i>, bai EAEkoak, bai ENPren xede-lurralde nagusietakoak.</p>
Ekitatea	<p>16. Bultzatzen diren herrialde-plangintzek, baremazio-taulek eta ekimenez, jatorrian eta xedeko lurraldean, <i>emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko eta lan-baldintzen gainerako</i> klausulak dituztela eta horrelako klausulak balioesten dituztela bermatzea eta ziurtatzea horien jarraipenerako sistemak izango dituztela.</p> <p>17. Bultzatzen diren herrialde-plangintzek, baremazio-taulek eta ekimenez, jatorrian eta xedeko lurraldean, <i>enpleguan etnia/arrazen dibertsitatea izatearen aldeko eta lan-baldintzen gainerako</i> klausulak dituztela eta horrelako klausulak balioesten dituztela bermatzea eta ziurtatzea horien jarraipenerako sistemak izango dituztela.</p> <p>18. Bultzatzen diren herrialde-plangintzek, baremazio-taulek eta ekimenez, jatorrian eta xedeko lurraldean, <i>enpleguan desgaitasunak dituzten pertsonak izatearen aldeko eta lan-baldintzen gainerako</i> klausulak dituztela eta horrelako klausulak balioesten dituztela bermatzea eta ziurtatzea horien jarraipenerako sistemak izango dituztela.</p>

Iturria: Geuk osatua

Gure ustez, 18 irizpide horiek erabili behar dira ENPa adierazi dugun logikatik ebaluatzen; izan ere, bestelako logika horren oinarrian dagoen enpresak nazioartekotzeko ereduak ez du soil-soilik hazkunde ekonomikoa lehenetsi behar (*guztien ongizatea/gizakiaren zentralitatea*); trantsizio energetiko atzerazaren aldeko apustua egin behar du, materialen,

energiaren eta hondakinen zikloak bereganatu behar ditu (*jasangarritasuna*); elkarren gaitasunak indartzeko prozesuak erraztu behar ditu zenbait eremu estrategikotan, hala nola enplegua, teknologia eta lan-baldintzak (*gaitasunak/ahalduntzea*); elkarrizketa horizontal eta inklusiboko egitura arinak izan behar ditu (*parte-hartzea*); eta abiatze-egoeran diren desberdintasunak eta asimetriak murrizteko ahalegina egin behar du (*ekitate*).


II. Kapituluua. Eragileen mapa

2.1. Eragileen maparen deskribapena

Kapitulu honen helburua da Eusko Jaurlaritzaren ENPa egiten eta inplementatzen diharduten eragile instituzionalak identifikatzea eta haien lana zehaztea.



10. Irudia: Eragileen mapa orokorra



Iturria: Geuk osatua

Premisa horretatik abiatuta, ikuspegi panoramiko batek erakusten digu Eusko Jaurlaritzako bi erakunde-atal handik lan egiten dutela politika horretan eta nahiko modu asimetrikoan jarduten dutela.

2.1.1. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila da Eusko Jaurlaritzako ENPren jarduerazutabe hegemonikoa. Sail horrek egiten eta inplementatzen du politika horren agiri estrategiko nagusia (*Enpresak Nazioartekotzeko Plana 2014-2016*) eta politika horrek darabiltzan tresna zehatz adierazgarrienak sustatzen ditu (diru-laguntzen ildoak, diplomazia ekonomikoa eta giza kapitala prestatzeko eta dinamizatzeo programak).

Sailean, *Nazioartekotze Zuzendaritza* da ENPa lantzeko eta betetzeko egitura nagusia, eta haren inguruan antolatzen da politika hori.

Bigarrenik, ENPa bultzatzeko organigramaren beste erakunde nabarmen bat da *Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua (SPRI)*. Horrez gainera, nabarmentzekoa da sail horrek itun publiko-pribatu bat duela izenpetuta eta indarrean Bilbo, Gipuzkoa eta Arabako merkataritza- eta industria-ganberekin.

Azkenik, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila da *Nazioartekotzearen Euskal Partzuergoko* burua. Koordinaziorako eta plangintza estrategikorako erakunde arteko organismoa da, eta, Eusko Jaurlaritzaz gain, foru-aldundiak eta merkataritza-ganberak dira haren kide.

Eskumen oso mugatuak izan arren, politika horretan parte hartzen du, egoeraren arabera eta jardun sistematikorik gabe, *Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak*, eta kontsultarako eskumen ez-lotesleak, eta ondorioz, oso mugatuak ditu *Euskadiko Nazioartekotze Kontseiluak*, ordezkaritza instituzionalek eta enpresa-ordezkariek osatua.

2.1.2. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia

Lehendakartzaren mendeko idazkaritza da. Mundura zabaltzeko eragile nabarmena da idazkaritza, baina, praktikan, bigarren mailako zeregina du ENPren barruan. Idazkaritzaren egiteko nagusiak dira sailen arteko koordinazio-lana egitea kanpo-proiektzioa duten gailorretan eta diplomazia ekonomikoaren alorreko ekimen batzuetan. Era berean, badu, neurri batean, plangintza estrategikoak lantzeko zeregin bat *Basque Country 2020 Estrategiaren* bidez, esparru horretan txertatzen baita ENPa. Alde horretatik, *Basque Country* marka diseinatzea eta sustatzea da bere egitekoetako bat.

Idazkaritzaren barruan, *Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza* dago, eta zuzendaritza horrek du harremana Euskadik kanpoan dituen delegazioekin. Delegazio horien egitekoa

da, besteak beste, diplomazia ekonomikoko lanak egitea haien ezarpen-lurraldeetan. Ordezkaritza instituzionalaren ikuspegitik egiten dute lan, baina politikaren eta enpresaren arteko sinergiak handitzea dute xede. Horrez gainera, Eusko Jaurlaritzaren sailen eta arloen kanpo-proiektzioen multzo osoa koordinatzen du zuzendaritza horrek, eta enpresen proiektzioa da nabarmenetako bat.

Berariazko egitura horrekin batera, nabarmentzekoa dugu *Kanpo Harremanetarako Aholku Batzordea*, idazkaritzak 2016an bultzatu duena –bertan parte hartzen duenetako bat da Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentzia–. Aholkularitzarako organismoa da eta eremu askotako eragile ugari ditu partaide. Haren bidez, Jaurlaritzaren kanpo-politikaren gaineko debateak egin nahi dira eta gai horri buruz galdetu nahi zaio gizarte zibilari.

2.2. Eragileen maparen azterketa kritikoa

Eusko Jaurlaritzako ENPri bultzada emateko organigramatik ateratzen dugun lehen ondorioa da Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila dela politika hori egin eta betetzeko organo hegemonikoa, eta horrek balio jakin batzuk dituen lehentasun politiko bat zehazten du. Adierazi dugu lehen tentsio edo kontraesan nabarmena dagoela lehiakortasunaren eta errentagarritasunaren ulermen edo esanahi ekonomizista huts edo hertsiaeren eta guztien onuraren, ongizatearen eta jasangarritasunaren artean; hori horrela, egitura instituzionalari begiratuta, ENPa euskal enpresen merkatuak zabaltzeko tresna soil baten moduan ulertzen dela dirudi, hori baita ENPa bultzatzen duten erakunde nagusien helburuek adierazten dutena.

Hori horrela, egitura instituzionalaren eta enpresa-egituraren mendekoa da Kanpo Harremanetarako Idazkaritzaren partaidetza aktiboa, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak –GGJren aldeko apustu berariazkoa egiten duenak– zeregin apalagoa du, sortu berria den eta pisu politiko txikia duen aholkularitza-organoa batean parte hartzera mugatzen baita.

Nabarmentzekoa da, alde horretatik, merkataritza eta industriako ganberek, berariazko hitzarmenen bidez, duten parte-hartze aktibo, organiko eta egiturazkoa; aitzitik, sindikatuek, gizarte-mugimenduek eta GGKEek, kasurik onenean, hausnartzeko xedea eta proiektio sozial eta politiko apala duten organoetan parte hartzen dute (Euskadiko Nazioartekotze Kontseilua, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea eta Kanpo Harremanetarako Aholku Batzordea). Asimetria horrek, itun edo hitzarmen publiko-pribatuen logika baten barruan, erakundeen eta enpresen arteko loturaren berri ematen du, eta adierazten du enpresen etekinak eta merkatuen eskurapena direla logika horren printzipio nagusiak.

Bigarrenik, nabarmendu behar dugu ez dagoela ENPa euskal enpresek jarduten duten herrialdeetan eragiten dituen inaktuak kontrolatzeko, jarraitzeko eta ebaluatzeko

egiturarik. Izan ere, gaur egun ez dago Eusko Jaurlaritzak egiten dituen ekimenetatik abiatzen diren ekintzen ondorioen berri izateko aukera ematen duen erakunde publiko edo publiko-sozialik, eta kontuan izan behar da horrelako erakunde batek egiten den lanaren emaitzen gaineko analisi oso bat egiten lagunduko lukeela, gure erreferentzia-esparruko irizpideetan oinarrituta, hala nola, tokiko egitura-ekonomikoen sorrera, teknologia-transferentzia, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko apustua eta trantsizio energetikoa.

Horrez gainera, gardentasun-ariketa egiazko bat egingo litzateke polemika handia sortzen duen politika baten gainean. Hori horrela, indarrean den *lex mercatoria* esparruak nolabaiteko inpuniatea dakarkie enpresen jardunari eta, horren aurrean, Eusko Jaurlaritzak ez du ENPren eta haren ekimenen GPKa baloratzeko gune edo espaziorik kontrajartzen, eta hori egitea kontu estrategikoa da, ildo horretako aurrerapausoak eman nahi baldin badira.

Finean, ENPri bultzada emateko organigrama instituzionala aztertu ondoren, lehiakortasunaren eta errentagarritasun ekonomikoaren inguruan egituratuta dagoela dirudi, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak bere *GPk esparruan* zalantzan jartzen duen horiek direnik balio hegemonikoak. Alde horretatik, nabarmena da Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak duen pisu handia eta merkataritza eta industriako ganberak duten rol garrantzizkoa.

Horren ifrentzuan, urria da sindikatuen, gizarte-mugimenduen eta GGKEen egitekoa, deliberaziora mugatua, egoerarik onenean. Gainera, ez dago desoreka hori ENPren jarraipenaren, kontrolaren eta ebaluazioaren ikuspegitik orekatuko duen egiturarik, ez du inork ere aztertzen ENP osoa GPKren logikatik, eta ez zaio, ondorioz, behar duen lekua ematen gardentasunari.


III. Kapituluua. Agiri estrategikoak

3.1. Agiri estrategikoen deskribapena

Eusko Jaurlaritzaren ENPa bideratzen duen egitura instituzionala aztertu ondoren, politikaren eduki zehatzari begiratuko diogu. Politika horretan *nor* direnak aztertu ondoren, hura *zer* den ikusiko dugu orain. Eusko Jaurlaritzaren ENPa egituratzen duten lau agiri estrategikoen berri emango dugu kapitulu honetan.



11. Irudia: Agiri estrategikoen eskema orokorra



Iturria: Geuk osatua

3.1.1. Ekonomiaren susperraldiaren eta enpleguaren aldeko esparru-programa

Eusko Jaurlaritzak X. legegintzaldian duen politika ekonomikoaren ardatza da. Ez da berariaz ENPra bideratutako agiria, eta estrategia ekonomiko orokorrago bat osatzen du. Estrategia horretan, EAEren susperraldi ekonomikoa eragingo duen lau sektoreetako bat da nazioartekotzea.

3.1.2. Nazioartekotzeko 2020rako esparru-estrategia: *Basque Country estrategia*

Eusko Jaurlaritzak nazioartekotzearen gai-alorrean duen esparru-plangintza da, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak egindakoa. Agiri horrek sektore eta dimentsio anitzeko ikuspegitik heltzen dio *nazioartekotzeari*. EAEren kanpo-proiektzioaren sektore-politikek (kultura, turismoa, garraioa, hizkuntza-politika, energia, etab.) zer ildo orokor izan behar duten agintzen du plan horrek. Enpresena, ikuspegi formaletik, beste eremu edo sektore bat litzateke, baina bere rola, praktikan, erabakigarria eta lehenetsua da (*Kanpo Ekintza Instituzionala*).

3.1.3. Enpresak Nazioartekotzeko Plana 2014–2016

Sektore-plangintza bat da eta *Basque Country 2020 Estrategia* zehazten du enpresen nazioartekotzearen esparruan, 2014–2016 eperako. Honako hau da bere helburua:

“Helburu nagusia EAEko enpresak, eta bereziki ETEak, merkatu globalean txertatzen laguntzea da, baita euskal enpresen nazioarteko lehiakortasuna sustatzea ere, haien ahalmen eta premietara egokitutako laguntza-esparru bat ezarriz egungo krisialdiaren testuinguruan, EAEn ekonomia irekitze-eta nazioartekotze-maila bultzatuz, atzerriko merkatua indartuz eta sendotuz, atzerrian EAEko enpresa gehiago ezartzeko erraztasunak emanez eta atzerriko inbertsioa Euskadira erakarritz” (Eusko Jaurlaritza, 2014c: 58).

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean egindako agiria da, eta ENPren alorreko agiri garrantzitsuena dela esan dezakegu, hura baita, tresnen lehen multzo honetan, politika horri dagokion izpiritua eta haren ildo nagusiak garbien eta fidelen jasotzen dituena.

3.1.4. Kanpo Ekintzako Plana 2014–2016

Basque Country 2020 Esparru Estrategiaren sektore-gauzapena da eremu politiko-instituzionalean, eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari dagokio hura diseinatzea.

Agiri horiek begirada eta ikuspegi askotarikoak biltzen dituzte, baina badute eredu komun edo konpartiturik, eta horiek dira, hain justu, ENPren antolamendu-ardatzak:

- Enpresen lehiakortasuna da balio eta irizpide hegemonikoa, eta euskal enpresentzat –eta, bereziki, ETEentzat– merkatuak zabaltzea da bere xede nagusia;
- *Basque Country Marka* eta *Herri-Estrategia* dira jarraitu beharreko ildoak;
- Lankidetzeta publiko-pribatua da erakunde-enpresa harremanaren eredu.

3.2. Agiri estrategikoen analisi kritikoa

Agiri estrategikoak irakurri ondoreneko lehen konklusioa da nortasuna ematen dion ikuspegi batek zeharkatzen dituela agiri horiek guztiak. Enpresen lehiakortasuna eta errentagarritasuna dira agiri horien indar-printzipioak, eta printzipio horiek dira agiri horien osagai nagusien oinarri ia bakarra, hala nola ezarritako helburuena, ekintza-ildo nagusia eta zehaztutako lehentasun geografikoena.

Hori horrela, merkatuak atzitzea eta, horren bidez, euskal enpresen lehiakortasun-posizioa hobetzea da sektore anitzeko izaera duten plangintzen faktore nagusia (esaterako *Nazioartekotzeko Esparru Estrategia: Basque Country 2020 Estrategia* agiriarena), eta faktore ia

bakarra da *Enpresak Nazioartekotzeko 2014-2016 Planean*, hau da, Eusko Jaurlaritzak bul-tzatzen duen ENPrek ikur nagusiarena.

Berariaz adierazitako abiapuntu bati jarraitzen dio logika horrek, eta agiri guztietan ikusten da hori, kausalitate lineal bat ezartzen baita *enpresen etekinen, hazkunde ekonomikoaren, garapenaren, enplegu-sorreraren eta ongizate kolektiboaren sorkuntzaren artean*. Logika hori, itxura batean, kontraesanean dago *GPK esparruarekin*, esparru horren abiapuntua bi alderdi hauen arteko tentsio nabarmena baita: enpresen etekinen handitzean soilik oinarritutako hazkunde-eredua, batetik, eta guztien onuraren, ongizatearen eta jasangarritasunaren sustapena, bestetik.

Alde horretatik, oso deigarria eta adierazgarria da *Basque Country 2020 Estrategiak* Golkoko herrialdeen gainean egiten duen karakterizazioa, ez baita egiten giza eskubideek herrialde horietan duten egoeraren gaineko aipamenik, ezta genero-ekitatearen gainekorik edo atzerri-kapitala jasotzen duten sektoreetan izaten diren lan-baldintzen gainekorik ere. Nabarmenezkoa da dimentsio askotakoa izan nahi duen eta bere ikuspegian *bakea, bizikidetzeta edo berdintasuna* gisako alderdiak barneratu nahi dituen agiri batek alderdi horien aipamenik ez egitea, eta aipamen falta hori are nabarmenagoa da herrialde horietako batzuek Siriako gerran izaten ari diren jokabideari begiratuta. Ez da ahaztu behar hura dela Europar Batasunak bizi duen krisi humanitarioaren eta giza eskubideen krisi handiaren jatorria, pertsona errefuxiatuena, eta European ez dela aspaldian tamaina horretako krisirik izan.

ENPrek sorrerako buruera edo kontzeptu horretatik eratoritzen dira Eusko Jaurlaritzaren ikuspegi estrategikoa zehazten duten gainerako elementuak. Hori horrela, eta enpresen zerbitzura dagoen kanpo-proiektiorako plataforma bat ematen duen jarduera instituzional baten eskutik, esanahi bete hartzen du lankidetzeta publiko-pribatuak, eta harreman horretan ez da planteatu laguntza publiko hori giza garapen jasangarriaren ikuspegitik orekatuko duen baldintza edo kontrapisu handirik ezartzea.

Hor txertatzen da *Basque Country Marka* eta marka horrek dakarren *lehiarako abantaila*, bide hori erakusten baitu *Kanpo Ekintzarako 2014-2016 Planak*. Era berean, agiriak maiz adierazten dute ETEak jartzen dituztela erdigunean, eta euskal enpresek nazioarteko merkatuetan duten lehia-posizioa hobetzeko xede-helmuga dutela; beraz, xede hori lortzeko, ETE estadioa gainditu eta, *Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programak* darabilen kontzeptua erabiltzeko, enpresa *multilokalizatuak* izatera iritsi behar dute, hau da, ondorio logikoan, enpresa handien eredura gerturatu behar dute. Enpresen lehiakortasunaren ikuspegitik soilik planteatzen da analisi hori. Horrekin batera, enpresen demokratizazioari buruz egiten diren aipamen apurrak berariaz lotzen dira enpresen lehiakortasuna maximizatzeko helburuarekin. Kontrapuntu moduan, garapenerako lankidetzak betetzen duen rol marginala nabarmendu behar dugu, sektore anitzekoa izan nahi duen agiriak berak ere, *Basque Country 2020 Estrategiak*, ez du haren aipamenik egiten.

Bigarrenik, EAEko interesak sustatzeko lana erdigunean jartzen dela nabarmendu behar dugu, baina ez zaiola apenas aipamenik egiten laguntzen diren enpresa-jarduerak hirugarren herrialdeetan eragin ditzaketen onurei eta, batik bat, haien gaitasunak indartzeko eraginari. Oro har, ez da aintzat hartzen helmugako edo xedeko lurraldeen ikuspegia. Agerikoa da jokabide hori lehenetsitako herrialdeak/eskualdeak hautatzeko irizpideei begiratuta.

Agiriak, berariaz *giza garapena* kontzeptua adierazten duenean ere, hura EAEn sustatu beharraz dihardu. Ikuspegi hori indartu egiten da planteamendu estrategiko guztietan "krisitik irteteari" ematen zaion garrantziarekin; izan ere, ikuspegi horren harian, jatorrian soilik hartzen da kontuan gaitasunen indartzea eta EAEn sortzea ongizate-adierazleak (batik bat, enplegua). Hori horrela, Eusko Jaurlaritzaren analisi estrategikoak ez ditu helmugako eragileen gaitasunak indartzeko irizpideak jasotzen: helmuga edo xedeko lurraldeko lehentasun estrategikoak, tokiko sare produktiboan eta zerbitzu publikoetan inpaktu onuragarriak eragitea, teknologia egokiko edo transferentzia teknologikoko formulak barneratzea edo tokiko prestakuntzako formulak txertatzea.

Finean, enpresen errentagarritasuna eta lehiakortasuna dira Eusko Jaurlaritzaren ENPak darabiltzan lerro estrategikoetako egiturazko irizpideak, eta irizpide horiek zeharkatzen dute enpresak nazioartekotzeko politika osoa. Irizpide horien gauzapeneko ardatzak dira, esaterako, lankidetzaren publiko-privatua, *Basque Country Marka* edo kanpora lehiakortasun handiagoa duten enpresa-modalitateen alde aldatu nahi izatea ETEen gehiengoa duen egitura produktiboa.

Esparru horretan, euskal enpresei merkatuak zabaltzeko lanaren garrantziak ez dio lekuri uzten ongizateari, guztien onurari, jasangarritasunari eta gaitasunen handitzeari, edo, bederen, haiek izan dezaketen lekuari erreparatu gabe proiektatzen du zeregin hori. Era berean, soilik EAEko eremura mugatzen da laguntzen diren enpresa-jardueren etekinen, inpaktuen eta haiek sor ditzaketen gaitasun-handitzeen gaineko hausnarketa, eta horrek kontraesan bat dakarkio GPKren izateari berari.

IV. Kapituluua. Tresnak


4.1. Tresnen esparruaren deskribapena

Eusko Jaurlaritzaren ENPren tresnak aztertuko ditugu kapitulu honetan. Politika horri nortasuna dakarkioten elementu nagusiek, aurreko kapituluan adierazi ditugun horiek, forma hartzen dute eta tresna zehatzetan zertzen dira.

Ugari eta askotarikoak dira tresnak. Sistematizazio bat egiteko ahaleginean, hiru modalitate nagusi adieraziko ditugu, eta hiru bloke edo multzo horretako bakoitzak tresna, programa edo lan-ildo berariazkoak izango ditu.



12. Irudia: Eusko Jaurlaritzaren ENPren tresnak



Iturria: Geuk osatua

4.1.1. Diru-laguntzen ildoak

Nazioarteko merkatuetan barneratzeko prozesuak edo alor horretako jarduerak egiten ari diren enpresei laguntza ekonomikoak emateko modua arautzen duten programak dira, eta esportazio-oinarria handitzeko jarduerak edo hirugarren herrialderen batean ezarpen iraunkorrak egiteko jarduerak laguntzen dituzte. Estaturaz azpiko gobernu batek, eta izaera hori du Jaurlaritzak, ENPak egitean dituen aukera urrien zatirik garrantzitsuena da. Diru-laguntzen lau programa ditugu:

- *Global Lehian*: Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen programa da egoitza EAEn duten enpresentzat, baldin eta kanpo-merkatuetarako proiektzioa duten jarduerak abiarazten baldin badituzte. Soilik mikroenpresak eta ETEak izan daitezke horien onuradun, eta nazioartekotze estandarreko prozesu baten sistematizaziotik abiatzen da. Fase hauek ditu prozesuak¹⁷: esportazioen hasiera; esportazioen finkapena eta kanpo-ezarpenera (batik bat, komertziala).
- *Gauzatu Kanpo Ezarpenak*: Euskal enpresak hirugarren herrialdeetan egin dituzten ezarpenak sendotzen laguntzeko programa da, eta produkzio-inbertsioetako laguntzak ematen ditu. Laguntza aurrerakin itzulgarrien bidez ematen da, hau da, itzuli egin behar da laguntza inbertsio-programa amaitu eta denbora-epe batera. Zer enpresa motari zuzentzen zaion begiratuta, programa hau ere ETEei zuzendutakoa da.
- *Interlehian*: Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen programa da, eta alde anitzeko erakundeek nahiz hirugarren herrialdeetako erakundeek sustatzen dituzten nazioarteko lizitazioetan parte hartu nahi duten enpresei zuzentzen zaie. Diru-laguntzen hartzaile diren erakundeek begiratuta, berritasun nabarmen bat dakar *Global Lehian* edo *Gauzatu* programen aldean. Izan ere, bi enpresa mota hauek parte har dezakete *Interlehian* programan: mikroenpresak eta ETEak alde batetik, eta enpresa handiak, bestetik¹⁸.
- *Elkartzen*: Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen programa da, eta bere helburua da kanpo-sustapenerako jardueren zati bat ordaintzeko laguntza finantzarioa ematea *klusterrei*. Finantzatzen diren jarduerak konkretu gehien-gehienak *diplomazia ekonomikoaren* ardatzekoak dira (misioak, feriak, etab.).

17 Eskema hori ez da soilik *Global Lehian* programan erabiltzen, Eusko Jaurlaritzaren ENP guztiaren analisi estrategikoa zeharkatzen baitu. Bestalde, araudiak laugarren zehar-ardatz bat eransten du fase guztietan: *talentuaren aktibazioa eta erakundeak merkatu globalera egokitzea*.

18 Enpresa handi horiek aldi baterako enpresari-elkarteetan parte hartzen dute; enpresa handi bat da burua eta mikroenpresa/ETE batzuk haren inguruan egiten dute lan, enpresa handi horren trakzio-gaitasunaren babesean.

4.1.2. Diplomazia ekonomikoa

Eusko Jaurlaritzak nazioartekotuta dauden enpresen eskura uzten dituen tresnen bigarren multzo handia da. Bi jarduera mota ditu multzo honek, baina elkarrri lotuta ageri dira:

- *Diplomazia korporatiboa*. Eusko Jaurlaritzako ENPa zabaltzeko organigramako eragileak, II. kapitularuan adierazi ditugunak, esku-hartzeak egiten dituzten hirugarren herrialdeetako erakunde publikoekin edo beste subjektu batzuekin, euskal matrizeko enpresa baten edo batzuen interes zehatzen alde egiteko.
- *Enpresei aholkua eta babesa ematea kanpoan*. Aholkularitza ematen zaie euskal enpresei hainbat alorretan, hala nola leku jakinen bateko burokrazia izapidetzeko aholkuak, indarrean diren arauak ezagutzekoak, tokian tokiko egitura ekonomikoaren egoerari buruzkoak eta hornitzailei buruzkoak.

Diplomaziaren eremuan, bi erakunde lan handia egiten dute Eusko Jaurlaritzako ENPan duten parte-hartze organikoaren ondorioz:

- *SPRI*. Hirugarren herrialdeetan euskal enpresei ezarpen iraunkorrak egiteko laguntza ematen espezializatuta dago, eta kanpoan dituen bulegoen sarearen bidez, aholkularitzako eta diplomazia korporatiboko lanak egiten ditu.
- *Merkataritza eta industriako ganberak*. Nazioartekotzearen esparrurako solaskide pribilegiatuak dira, eta esportazioak indartzeko esparruan espezializatu dira. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin egindako hitzarmenetan ezartzen dira berorien zeregin zehatzak. Nabarmentzekoa da *Kanpo Sustapena* atala, eta, haien barruan, *misio komertzialak*.

Bi erakunde horiek diplomazia ekonomikoaren alorrean egiten dituzten lanen errebaso orokorra egin ondoren, diplomazia horren tresna nagusi batzuk aipatuko ditugu, bi tresnaren erreferentzia baliatuz.

- *Merkataritza/enpresako misioak*: Estatuaz azpiko gobernuen, eta, berariaz, Jaurlaritzaren diplomazia ekonomikoaren adierazpen nabarmenetako bat dira. Leku jakin batean (kasu honetan, EAEn) antolatutako bidaia kolektiboak dira, eta hirugarren herrialdeak dira horien jomuga. Misioen helburua da jatorriko lurraldeko enpresen presentzia, eta, gehien gehienetan, esportazioak handitzea xedeko merkatuan. Lan hori bideratzeko, enpresekiko eta erakundeekiko harremanak, interlokuzioak eta kontrako alderdiak sustatzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoan, merkataritza-ganbaren bidez bideratzen da lankidetzeta publiko-pribatua.
- *Nazioartekotzerako Euskadi-Mexiko Plangintza Estrategikoa*: Herrialde-plangintzak dira diplomazia ekonomikoaren esparruko ekimenen osagai garrantzitsu bat. Berariazko

planak dira, eta beren xedea da norberaren enpresa-sareko enpresak kanpo-merkatu jakin batean barneratzeko estrategiak abian jartzea. Mexikorako plangintzari begiratuta, adierazi behar da garrantzi handiko herrialdearen izendapena jaso duela bai *Basque Country 2020 Estrategian*, bai *Enpresak Nazioartekotzeko 2014-2016 Planean*. Plangintza estrategikoak *diplomazia korporatiboko* estrategia berariazko bat ezartzen du, eta honako hau da estrategia horren xedea:

"Euskadik eta bere Basque Country markak Mexikon kokapen ona izango dutela bermatzea, Mexikon ezarriko dituen enpresek kokapen ona izango dutela ziurtatzea, ezarpen komertzial eta produktibo berriak erraztea Mexikon, eta bi herrien arteko eragiketen kopurua handitzea."

4.1.3. Jatorrian indartzea gaitasunak

Askotariko jarduerak dira, eta horien xedea da enpresek nazioarteko merkatu orotan barneratzeko izan behar duten prestakuntza, jarrera eta, oro har, giza kapitala eta materiala hobetzea, eta, horien bitartez, hainbat erronkari aurre egitea: teknikoak, ekonomikoak, logistikoak, prestakuntzakoak, pertsonalaren alorrekoak, etab. Kategoria horretako jarduera nagusiak dira gai-alor horretan espezializatutako giza kapitala sortzea eta dinamizatzea, nazioartekotzearen bideari ekin nahi dioten enpresetan sar dadin eta lanbide-jakintza kualifikatua ekar dezaten.

Zehazki, giza kapitala sortzea esaten denean, esan nahi da prestakuntza eman nahi zaiela hasiera batean enpresen nazioartekotzearen alorreko prestakuntza hori izan ez edo prestakuntza hori maila apalean duten pertsoneri, gerora profil horren premian dauden erakundeen eskura uzteko, honako bi programa hauen bidez:

- *BEINT Nazioartekotze beka*. Prestakuntza-beken programa da, goi-mailako unibertsitate-titulazioa izan eta 30 urte baino gutxiago dituzten pertsoneri zuzendua. Itzuli behar ez diren beka dira, eta berorien ezaugarri nagusia da prestakuntzaren edukia enpresen nazioartekotzearen esparrura mugatzen dela. Hau dute helburu: *"euskal enpresek eta bestelako erakundeek etorkizunean profesionalen kopuru oinarritzko bat eskura eduki ahal izatea, eraginkortasunez ekin ahal izateko ekonomia irekiaren erronkei"*.
- *Global Training beka*. Nazioarteko mugikortasuneko beka-programa da (itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak ematen ditu). Beka horien ezaugarri bereizgarria da ez dela enpresen nazioartekotzearen esparrura mugatzen, eta ikuspegi zabalago bat duela abiapuntu: pertsona gazteen lan-eskarmantua sustatzea atzerriko enpresa eta erakundeetan.

Bestalde, giza kapitalaren dinamizazioa aipatzen denean, lehendik dagoen kapitala mugiarazi nahi da, hau da, nazioartekotzearen esparruan prestakuntza akademikoa eta/edo

lan-esperientzia izan eta kanpo-merkatuetan sartu nahi duten enpresek zaindu behar dituzten logikak, prozedurak eta bestelako alderdiak ezagutzen dituzten pertsonak mugiarazi nahi dira, honako 3 tresna hauen bidez:

- *PROFEX programa*. Diru-laguntzen programa da, eta bere xedea da euskal enpresei enpresen nazioartekotzearen esparruko sustatzaileak/espezialistak kontratatzeke finantzazioa ematea. Helburua da esportazio-departamentuak sortzea programan parte hartzen duten ETEetan, kanpo-merkatuetan sartzeko bideari ekin diezaioten. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak hornitzen ditu programaren funtsak, eta Bilboko, Gipuzkoa eta Arabako merkataritza-ganbarek kudeatzen dute programa.
- *LANdhome programa*. Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen programa da, eta bere xedea da EAEko enpresek atzerrian lanean ari diren euskal profesionalak kontratatzea. Programaren helburua da kualifikazio handia duten profesionalen itzulera bideratzea, baldin eta euskal produkzio-sarera ekar baldin baditzakete nazioarte-esparruaren gainean duten jakintza. Programa nahiko berritzaile batean zehaztu da asmo hori.
- *Basque Global Network sarea*. Azpi-sare bat da, eta bere helburua da enpresaren alo-erko euskal diasporako pertsona nabarmenak erakartzea eta harremanetan jartzea.

4.2. Tresnen esparruaren analisi kritikoa

Agiri estrategikoak eta organigrama instituzionala aztertu ondorengo konklusio nagusi bera ateratzen dugu Eusko Jaurlaritzaren ENPa zabaltzeko jarri diren tresna konkretuen hiru blokeak aztertu ondoren: merkatuak atzitzea da baliatzen den kontzeptu nagusia eta bakarra, eta horren inguruan ulertzen da enpresa-lehiakortasunaren kontzeptua.

Idea horretan oinarritzen dira, beraz, diru-laguntzen programak (bai kanpo-esportazioak eta -ezarpenak sustatzekoak, bai prestakuntza indartzekoak) zuzentzen dituzten arauak, eskaerak baloratzeko eta barematzeko irizpideak eta diplomazia ekonomikoaren ardatz nagusiak.

Horren guztiaren ondorio zuzena da nabarmena dela etekinaren sorreratik, merkatuen atzitzetik eta Euskadin enplegua sortzetik haragoko ikuspegietan oinarritutako analisi- eta balorazio-irizpideen gabezia, eta nekez azaltzen direla -eta, noski, ez zaiela inolako indar politikorik ematen- giza garapen jasangarriaren alorreko irizpideei, hau da, gizakiaren ongizateari eta zentralitateari, jasangarritasunari, gaitasunen handitzeari eta ahalduzeari, parte-hartzeari eta ekitateari.

Egoera horren adierazle oso argigarria da ikustea nola gauzatzen den hori guztia *Global Lehian* eta *Interlehian* programetan, korporazioen gizarte-erantzukizuna barneratzen duten aldetik eskaerak barematzeko tauletan. Egoera horietan, administrazioak enpresei egiten dizkien eskakizunak ez da diruz lagunduko den proiektu zehatzera nahitaez ekarri

behar izatea zenbait elementu edo osagai; aitzitik, ziurtagiri horiek edukitzea eskatzen die administrazioak enpresei. Ziurtagiri horiek oso ekarpen txikia egiten diote puntuazioari (ez dira, inoiz ere, puntuazio guztizkoaren % 3tik gorakoak), eta ez dira erabakigarriak deialdiko eskaera jakintzak arrazoi edo betekizun horregatik onartu edo baztertuko diren zehazteko. Edonola ere, deialdiak dira, neurri handi batean, irizpide mota hori barneratzen dituztenak, *Gauzatu* programak ez baititu euskal enpresaren lehiakortasuna handitzeko helburu eskusibotik haragoko ikuspegiarik.

Diplomazia ekonomikoan eta misio komertzialetan agerikoa da jasangarritasuneko eta giza garapenerako ikuspegi gabezia; izan ere, ekonomia- eta enpresa-kontzeptu dimentsio bakarrak erabiltzen dira bidaiak nora egingo diren zehazteko eta nork bidaiatuko duen erabakitzeko. Alde horretatik, nabarmentzekoa da zer-nolako sendotasuna duen merkataritza-ganbarekiko lankidetzak publiko-pribatuak kanpo-sustapenerako jarduerak horietan, eta, horrekin batera, nola ez den bestelako sektoretako eragileek, sindikalgiaren eragileek, garapenerako lankidetzako eragileek eta bestelako gizarte-mugimenduen parte-hartzerik ikusten, nahiz eta, zenbaitetan, azken eragile horiek presentzia iraunkorra edo aliantza egonkorra izaten dituzten xede edo helmugako lurralde horietan. Era berean, adierazgarriak dira, esaterako, *Euskadi-Mexiko Nazioartekotzeko Plangintza Estrategikoan* egiten diren bi erreferentzia, nola diren, batetik, lan-kostuak industria-kosten funtsezko lehiakortasun-faktore direla adieraztea, eta, bestetik, merkataritza aserako tratatuen balorazio positiboa egitea. Eta horren pareko adierazgarritasuna du ikusteak ez zaiola garrantzirik ematen, helburuak eta lehentasunak planteatzeko garaian, giza eskubideen urraketak, xedeko herrialdean, egiturazkoak izateari; horrela, giza eskubideen gainetik jartzen *lex mercatoria*. Eta adierazgarria da, era berean, ikustea ENPak ez duela asimetria hori zuzentzeko asmorik, halakorik ez balego moduan jokatzeko baitu. Alde horretatik, Herrien Auzitegi Iraunkorraren Mexiko kapituluko sententziak, 2014ko azarokoak, adierazpen kategoriko hauek egin zituen: *"Ipar Amerikako Merkataritza Itunak aurrez aurre egiten du talka Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearekin"* (HAI, 2014: 15), eta *"Giza eskubideen babesaren alorrean lan egiten dutenen salbuespenarekin, Mexikotik kanpo ez da behar bezain besteko argitasunez jakiten zer maiztasunez handiz erabiltzen diren mehatxuak, erasoak, erailketak, desagerrarazteak, torturak, lurren bidegabeko jabetzeak eta behartutako desplazamenduak beren eskubideak defendatzen dituztenen eta erresistentzien aitzindari direnen aurka"* (HAI, 2014: 32).

Logika horri berari jarraituz, ez dira aintzat hartzen beste irizpide funtsezko batzuk. Ez da jasangarritasunaren eta energia-trantsizioaren aldeko klausularik Eusko Jaurlaritzak lagundutako ekimenetan, eta ez da eskatzen ingurumen-inpaktuko azterketak egiterik.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremurako ezartzen dira, argi eta garbi, inpaktu edo eragin onuragarriak bilatzeko eta gaitasunak indartzeko helburuak, eta bere gain hartzen dituen ikuspegi bakarrak dira euskal enpresa-sarearen gaitasunak indartzea, batetik, eta gure lurraldean enplegua sortzea, bestetik. Ikuspegi horiek baztertu egiten dute enpresen

nazioartekotzearen alorrean ezinbestekoa den hausnarketa bat: ez dago xede edo helmugako lurraldeko lan-baldintzak kontrolatzeko modua emango duen adierazle, klausula edo baremorik, eta merkataritza-ganberetako nazioartekotze-arduradunek adierazten dute, gai horren inguruan galdetuta, xedeko lurraldeko legediaren estandarra erabiltzen dela, logika neoliberalaren eraginpean.

Hari horri jarraituta, ez dira ekimenetan, analisisetan eta baremazio-tauletan barneratzen xedeko lurraldeen lehentasun estrategikoak. Ez da aintzat hartzen, ezta ere, tokiko produkzio-sarean eragin daitezkeen inpaktu onuragarrien sustapena, ezta teknologia transferitzeko dinamikak ezartzeko aukerak ere. Dinamika horiek, gainera, oztopatu egiten dira *Interlehian* tresnak sustatutako zenbait logika edo jardun-moldeetan eta merkataritza-ganbaren eta Lehiakortasun Sailaren arteko hitzarmenak adierazten duen *industria osagarriaren eta azpikontratastaren babes*a xedapenean; izan ere, enpresa traktoreak atzerrira beren euskal hornitzaileekin batera joateko asmoa adierazten dute, eta horrek mugatu egiten du toki-entitateekiko interakzioa.

Euskal enpresa-sarerako giza kapitala soilik sortzeko eta dinamizatzeko osatu dira prestakuntza-tresnak, eta merkatuak zabaltzeko ikuspegi ekonomizista klasikoa darabilte.

Oro har, tresnen multzo osoak epe luzerako ikuspegia darabil, eta, haren bidez, nazioarteko logika edo jardun-modu iraunkorrak sustatu nahi dira, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen posizioak modu iraunkor batean finka daitezen kanpo-merkatuetan. Baina ez dago hain garbi berrinbertsioak lehenesten direnik etekinen aberriratzearen aurretik; izan ere, hegemonikoak dira EAEko sarearen interesa eta errentagarritasun-irizpideen zentralitatea. Ez da zer lehenesten den azaltzen duen irizpide zehatzik ematen. Horrez gainera, ez da inon adierazten, ez jatorriko lurraldean, ez xedekoan, euskal enpresen zabalkundearen logika demokratikoak barneratzeko irizpiderik.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren irizpideak badu nolabaiteko presentzia diru-laguntzen programak arautzen dituzten xedapenetan. Hala ere, estatuan *gizonen eta emakumeen berdintasunaren* alorrean indarrean den legea onartu ondoren barneratu da irizpide hori araudietan. Era berean, ez dago xedeko lurraldeetan genero-berdintasuna sustatzeko irizpidea barneratuko duen ikuspegi berariazko edo berezirik. Halaber, ez dago etnien/arrazen dibertsitatea sustatzeko klausularik, ezta desgaitasunak dituzten pertsonen ikuspegia barneratzen duenik ere.

Azkenik, eta adierazi dugun moduan, ez dago sustatzen diren ekimenek giza garapen jasangarriaren ikuspegitik duten eraginaren edo inpaktuaren jarraipena egiteko egitura edo sistemarik.

Finean, aurreko kapituluuan izaera estrategikoa eta hegemonikoa zuten balioek eta helburuak (lehiakortasuna eta errentagarritasuna, merkatuak atzitzea eta inbertsioen

segurtasuna, beste ezin irizpideren gainera) modu koherente batean eramaten dira tresnen esparru batera, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ENPren ardatz moduan azaltzen baitira, tresna-esparru horretan, lehen adierazitako balio eta helburu horiek (tresnen esparru horretan, noski, ez da giza garapen jasangarriarekiko koherentziarik bilatu).

Hori horrela, ez da giza garapen jasangarriko oharpen edo irizpiderik ageri diru-laguntzen eta giza kapitalen gaineko ildoetan (hau da, ez da gehiengoan ongizatea, gaitasunen elkarrekiko indartzea, jasangarritasuna, parte-hartzea edo ekitatea kontuan hartzen), nahiz eta salbuespenez aurki daitekeen, tresnaren batean, sozietateen gizarte-erantzukizunari buruzko aipamen laburren bat edo *emakumeen eta gizonen berdintasunaren legearen* gaineko oharren bat (hala ere, aipu edo ohar horiek ez dira inoiz ere egiten xedeko edo eragiketetako lurraldeetarako). Horrekin batera, gizarte-ganbarekiko lankidetzak publiko-privaturako itunetan oinarrituta, etekina eta lehiakortasuna dira, hertsiki, diplomazia ekonomikoaren irizpide gidariak, eta diplomazia horretatik baztertzen dira gizarte-mugimenduak eta giza garapen jasangarriko ardatzak. Horren guztiaren ondorioa da lehiakortasun hutsaren alde egiten duela ENPak, eta atzendu egiten dituela giza eskubideen esparrua eta giza garapen jasangarria. Egoera horrek kontraesan bat dakarkio Eusko Jaurlaritzak *GPKren esparruan* adierazten denari.

V. Kapitula. Konklusioak eta gomendioak

Eragileak, egiturak, agiri estrategikoak eta tresna nagusiak goitik behera aztertu ondoren, sistematizatu egingo ditugu, txosten hau amaitzeko, Eusko Jaurlaritzak 2014. urteaz geroztik eta garapenerako politiken koherentziaren ikuspegitik (GPK) sustatu duen enpresak nazioartekotzeko politikaren (ENP) balorazioari buruzko konklusio nagusiak.

Era berean, gomendio moduan planteatuko ditugu zenbait proposamen, giza garapen jasangarriaren ikuspegia gailenduko duen ENP batean sakontzeko –hori egitea planteatzen du, berariaz, Eusko Jaurlaritzak beran beren *GPK esparruan*–, baina ez da ahaztu behar ez dela adostasunik lortzen honako auzi hau erabakitzeko: ea ENPa bera guztien onurarako eta jasangarritasunerako tresna ote den.

Lan hori egiteko, lehen kapitulan eraiki dugun erreferentzia-esparrua baliatuko dugu. Esparru hori egiteko, 18 irizpide zehaztu ditugu, giltzarriak diren aldetik GPKren ikuspegitik ulertzeko ENPa. Irizpide horiek 5 indar-ideiaren inguruan antolatzen dira:

- *Ongizatea–gizakiaren zentralitatea* (guztien onurari, giza eskubideei eta jasangarritasunari atxikitako helburuak, printzipioak eta konpromisoak; agenda, egitura eta eraginak edo inpaktuak modu parte-hartzailean ebaluatzeko sistema berariazkoa).
- *Jasangarritasuna* (jasangarritasunaren eta energia-trantsizioaren aldeko klausulak; ingurumen-inpaktuko azterlanak).
- *Gaitasunak–ahalduntzea* (elkarren gaitasunak indartzea eta gaitasunen truke horizontala egitea jatorriko eta xedeko lurraldeen artean; xedeko lurraldeko lehentasun estrategikoekiko koherentzia; eragin onuragarria tokiko produkzio-sarean eta tokiko zerbitzu publikoetan; teknologia egokirako eta teknologiaren transferentziarako formulak; tokiko prestakuntza; hazkunde garbia izatea enplegu duinak, sindikatu-askatasunak, negozioazio kolektiboak eta greba-eskubideak; inbertsio egonkorra eta ziurra epe luzean eta berrinbertsioa lehenetsiko duena, etekinen aberriatzearen gainetik).
- *Parte-hartzea* (lana eta erabakiak hartzeko modu demokratikoak gailentzen dituzten enpresa-ekimenak; bermatzea sustatzen diren herri-plangintzek –eta, batik bat, kanpo-ekintzako misioek– beren barnean hartuko dituztela giza garapenerako eta jasangarritasunerako osagaiak, eta ziurtatzea gizarteko eta sindikatuetakiko eragileen kopuru nahiko eta adierazgarri batek partaidetza aktiboa izango duela; egiturek indar politiko nahikoa izatea; izaera inklusiboko estruktura, gizarteko eta sindikatuetakiko eragileen kopuru nahiko eta adierazgarri baten parte-hartze aktiboa izango duena).
- *Ekitatea* (gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna enpleguan eta lan-baldintzetan; etnia/arrazen dibertsitatea enpleguan eta lan-baldintzetan; desgaitasunak dituzten pertsonen enpleguan eta lan-baldintzetan).

5.1. Konklusioak

Konklusio nagusiak azaltzen hasi aurretik, txosten honen sarreran, aztergaiaren nondik norakoak zehaztean, azaldu ditugun zenbait alderdi gogoratzea komeni da:

- Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen ENPren analisiak *eskumen-esparru mugatu bat* –Jaurlaritzak ez du eskumen eta agentziarik kanpo-politikan eta nazioarteko merkataritzan–, *eremu geografiko jakin bat* –Euskal Autonomia Erkidegoa–, eta *enpresa-sare zehatz bat* –enpresa txiki eta ertain ugarikoa– aztertzen ditu. Hori horrela izanda, zuhurtziaz hartu behar dira ikerlan honen konklusioak beste eskumen-esparru, eremu geografiko eta egitura ekonomiko batzuetako egoerekin konparatzeko egiten diren analisiak.
- Enpresak nazioartekotzeko alorraren hiru esparru nagusietako bi soilik aztertzen ditu txosten honek (ondasunen eta zerbitzuen esportazioa, alde batetik, eta kanpo-azarpenak, bestetik), eta aurreragoko beste ikerketa batzuetarako uzten du atzerri-inbertsioen erakarpenaren ildoak. Era berean, *politika publikoari berari* jarri zaio fokua, hau da, Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen ENPa gauzatzeko egiturei, esparru teoriko-politikoari eta tresnei. Horrenbestez, ez ditugu politika horren inpaktuak edo eraginak ebaluatzen –beste txosten osagarri batzuek egin behar lukete hori, kontuak emateko sistema sendoak erabilita, nahiz eta gaur egun ez dagoen horrelako sistemarik–, bai, ordea, politika horren definizioa edo zehaztapena, hau da, *nork* egiten duen, *zeren gainean* eraiki den eta *nola* egina dagoen ebaluatu dugu.

Ez dugu, beraz, emandako laguntzen eta abiatutako ekimenen azken emaitza ebaluatzen; izan ere, horien oinarri den politika publikoaren egiturak GPKa aintzat hartzen ote duen ala ez baloratzen dugu. Edonola ere, kontraesanen erori gabe, esan dezakegu politikaren ardura duen erakunde publikoa –interes publikoaren defendatzailea– ez baldin bada giza eskubideen, guztion onuraren eta jasangarritasunaren alde aritzen, nekez egingo dutela halakorik erakunde pribatuek, berorien nortasun-bereizgarria ahalik eta etekin handienak ateratzea den aldetik. Hori horrela, ezin ditugu zuzenean ebaluatu abiatu diren ekimen ugariak, baina ENPren azterketa osoa egitean, zeharka argituko zaigu ekimen horien azken eragin edo inpaktua interpretatzeko modua.

Bi gai horiek kontuan izateaz gain, gogoan izan behar dugu Eusko Jaurlaritzak garapenerako politiken koherentziaren alde egin zuen apustu politikoa, *GPk esparruan* zehaztua. Erreferentziazko agiri horrek adierazten du garapenerako politiken koherentziak:

- *Giza garapenaren eta jasangarritasunaren* ikuspegia txertatu behar du *politika publikoen diseinuan, abiaraztean eta ebaluazioan* eta politika horien arteko maila guztietan *koordinatu eta osatu* behar du;
- Gobernu-ekintzarako *oinarrizko erreferentzia* izan behar du, barneko garapen-estrategiei zein *kanpoko ekintzari* edo bi alderdien arteko loturari dagokienez;

- Bateragarri egin behar ditu garapen-prozesuak eta *ase egin behar ditu herrialde batzuetan zein besteetan dauden giza beharriak*. Herrialde bakoitzaren antolamendu ekonomiko eta sozialaren errespetuan oinarrituta, lurralde batean hartzen diren erabakiek ez dituzte kalte behar beste lurralde batek ongizate-maila handiagoetarantz aurrera egiteko dituen aukerak;
- Lehiakortasunaren ikuspegi jakin bat zabaldu behar du, eta, sustatu nahi duen ereduak *efizientzia sozial eta ekologikoaren defentsa* egin behar du, eta ez du lehentzi behar merkatuen arteko norgehiagoka, ikuspegi horrek, zenbaitetan, eskubideen gutxitzea, prekaritatea eta segurtasun gabezia baitakarkie pertsoneri eta naturabaliabideak suntsi baititzake.

Premisa multzo horretatik abiatuta, honako konklusio orokor hauek ateratzen ditugu, eta ondoren modu sistematikoan eta berariazkoan ekarriko ditugu giza garapen jasangarriko indar-ideietara –eta ideia horiek zehaztean ENPa aztertzeke zehaztu ditugun 18 irizpidetara–:

1. Eusko Jaurlaritzak enpresak nazioartekotzeko bultzatzen duen politikak *ikuspegi* bat du (esparru teorikoaren definiziotik hasi eta laguntzak eta ekimenak egiteko irizpideen zehaztapenean amaituta, lehentasunezko eragileak eta egiturak adierazi ondoren) eta *ikuspegi horren oinarri bakarra da* euskal enpresen *lehiakortasuna eta errentagarritasuna handitzea*, merkatu berriak atzitzea eta, azken buruan, Euskal Autonomia Erkidegoan enplegua sortzea. Oso bestelako ildo batean, beraz, adierazi behar dugu Eusko Jaurlaritzaren ENPa ez *duela aintzat hartzen garapenerako politiken koherentziaren ikuspegia* modu oso eta orokor batean, hau da, politika publikoak zehazteko fase eta esparru guztietan. Alde horretatik:
 - a. ENPren agiri estrategiko nagusiak ez dira giza garapen jasangarriko balioetan eta helburuetan oinarritzen. Agiriak aipatzen du, modu puntualean, *Basque Country Estrategia*, baina estrategia horrek ez ditu aldatzen agiriaren izaera eta helburu nagusiak. Era berean, *Kanpo Ekintzako Planak* beste helburu estrategiko bat adierazten du, *mundu bidezkoago eta orekatuago bat lortzeko*, baina ez zaio jarduera-ildo zehatzik ematen helburu horri. Aipamen horiek desagertu egiten dira, erabat, ENPren muintetik, hau da, *Enpresak Nazioartekotzeko 2014-2016 Planetik*. Agiri horrek zehaztu eta nabartu egiten du lehen adierazitako apustua-ren xede diren printzipio gidariak, hau da, lehiakortasun hutsa, errentagarritasuna, merkatuak atzetzea eta Euskadin enplegua sortzea, inolako kontrapisurik jarri gabe.
 - b. Elementu edo osagai tekniko-enpresarialetan oinarritzen dira tresnetan parte hartzeko eskakizunak eta baremazio-irizpideak –hau da, politika publiko guztien ardatzak, esparru praktikoteko-teorikoa praktikara daramaten aldetik–, eta atzendu egiten dira, erabat, alderdi sozialak, enpleguak, ekologikoak edo eragiten den herrialdeko gaitasunak indartzeko irizpideak. Diru-laguntzen ildoei begiratuta,

bi deialdik soilik egiten diote aipamen lauso bat, barematzeko irizpideen artean, korporazioen gizarte-erantzukizunari, baina indar gutxiko irizpide apala da inondik ere, ez baitu, inoiz ere, puntuazio guztizkoaren % 3a gainditzen. Era berean, badira irizpide osagarri gutxi batzuk (batik bat, genero-ekitateari buruzkoak eta, bestelakoak, armak ekoizten, merkaturatzen eta finantzatzen dituzten enpresak baztertzea dakartenak, besteak beste), baina aurrez emandako lege batzuek (*otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa; martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen berdintasun eragingarriakoa; edo abenduaren 28ko 14/2007 Legea, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarena*) araututakoak dira, eta gutxiegi dira enpresa-faktoreen eta faktore teknikoaren aldean. Diplomazia ekonomikoari begiratuta, enpresaren eta alderdi teknikoaren hegemonia horretan kokatzen dira funtzionamendurako irizpideen eta ereduaren multzoa, eta ez da bestelako balioren gaineko aipamenik egiten, ezta modu erretorikoaren ere. Egoera horren erakusgarri da, esaterako, Mexiko herrialde-planaren *industria-kostuak* atalean lehenesten diren Mexikoko estatuetaiko soldata-kostuen egoerari soilik begiratzeko zaiela, eta kaltegarri irizten direla *lan-araubide mugatzaileak* eta *efizientzia urriko zerga-araubideak*. Jatorriko gaitasunak indartzeko tresnek, era berean, enpresa-ikuspegi eta ikuspegi tekniko hori gailentzen dute, bai jarraibide orokor moduan, bai prestakuntzarako baldintza eta eduki moduan.

c. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren hegemonia du oinarri ENPren egitura orokorrak, eta haren xedea da euskal enpresen garapen ekonomikoa eta lehiakortasuna indartzea. Xede hori bete-betean barneratzen da ENPren nortasunetzko izaeran. Kanpo Ekintzaren egitekoak, funtsean, osatu egiten du Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak diplomazia ekonomiko-korporatiboaren bidez zehaztutakoa. Horrez gainera, lankidetzak edo hitzarmen publiko-pribatu baten gainean oinarritzen da politika publikoa, Eusko Jaurlaritzak eta merkataritza-ganbarek dituzten interesen erkideen erakusgarri, baina, ifrentzuarri begiratuta, baztertu egiten dira sindikatuak eta gizarte-mugimenduak. Berriki sortu eta eragintza-gaitasun handirik ez duen erakunde batek, Kanpo Harremanetarako Aholku Batzordeak, soilik du gizarte-eragileen partaidetza, baina GGKEetara mugatuta.

2. Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen enpresen nazioartekotzerako politikak ez du koherentziarik *Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparruak* arautzen dituen lau xede nagusiekin. Xede horiei begiratuta, ezin daiteke esan, lehenik eta behin, giza garapena eta jasangarritasuna direnik ENPa diseinatu, bete eta ebaluatzeko erreferentziak; aitzitik, euskal enpresen lehiakortasuna eta errentagarritasuna dira haren ardatz nagusiak. Horrez gainera, ezin da esan giza, ezta ere, garapena eta jasangarritasuna direnik kanpo-ekintza guztiaren erreferentzietako bat, ENPa baita, nazioarteko lankidetzarekin batera, nazioarteko politika garrantzitsuena. Hori horrela, esparru horrek ez du GPKrik, eta horrek erakusten du bide eta izaera kontraesankorrak ezarri direla bi kanpo-politika

nagusientzat; gainera, logika edo jardun modu horren beste adierazpen bat da garapenerako lankidetzak bigarren mailako garrantzia izatea *Basque Country 2020 Estrategian*. Hirugarrenik, kontuan izan behar da ez dela inolako interesik adierazten eragiten den herrialdeen beharizanak asetzeko; izan ere, ez da horrelako irizpiderik ageri ez agiri estrategikoetan, ez tresnek darabiltzaten baremazio-irizpideetan –eta, noski, ez du halakorik kontuan hartzen ebaluazio-sistemak, ez baitago halakorik–. Azkenik, ez da efizientzia sozial eta ekologikoaren ikuspegitik bultzatzen lehiakortasuna; aitzitik, merkatu-lehiaren ikuspegitik lantzen da lehiakortasunaren kontzeptua, enpresa-dimentsioari soilik begiratzen baitaio.

3. Aurreko bi konklusioek adierazten dutenaren ildoan eta gure erreferentzia-esparruari begiratuta, adierazi behar da Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen enpresen nazioartekotzerako politika ez dela gutxieneko betetze mailara iristen ENPren politiken koherentzia baloratzeko lehenetsi diren 18 irizpideetan. Alde horretatik, esan daiteke ENPa ez duela giza garapen jasangarriaren ikuspegia aintzat hartzen politika hori zehazteko eta inplementatzeko egitura osoan, eta diruz lagundutako erakunde bakoitzaren eta/edo deialdietan eta ekimenetan parte hartzen dutenen borondatearen esku uzten duela alderdi hori. Hori horrela, zaila izan daiteke irabazi asmoa duen entitate pribatu batek giza garapen jasangarriaren alde egitea, baldin eta ez baldin badago horretara behartzen duen araubide publikorik. Gainera, lehen kapituluan adierazi dugun moduan, kontuan izan behar da giza eskubideek kalterako dutela *lex mercatoriar*en hegemonia eta arauen simetria. Ikuspegi hori gailentzen dela erakusten dute enpresek nazioartekotzerako lurraldeak hautatzean erabiltzen dituzten irizpideek.

Hiru konklusio orokor horietatik abiatuta, konklusio espezifiko batzuk zehaztuko ditugu, gure erreferentzia-esparruko indar-ideiei eta 18 irizpideei begiratuta:

1. *Ongizatea/gizakiaren zentralitatea*: Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ENPa, oro har, koherentea da enpresen lehiakortasunaren eta errentagarrietasunaren aldeko apustuarekin eta horiek ditu balio nagusi; aitzitik, ez dute lekurik guztien onurak, ongizateak, giza eskubideek eta jasangarritasunak, ez esparru teorikoan, ez tresnak zehazteko prozesuan (1. *irizpidea*). Gainera, ez da ebaluaziorako egiturarik edo sistemarik sortu, eta ondorioz, ez da ebaluatu eta ezin da justifikatu zer-nolako eragina duten abian jarritako ekimeneak, nahiaz eta elementu estrategikoak diren ENPa osotasunean baloratzeko (2. *irizpidea*).
2. *Jasangarritasuna*: Klimaren eta energiaren egoerak oso larriak diren arren, ENPren helburuek, printzipioek eta irizpideek ez dute aintzat hartzen energia-trantsizioan aurrera egiteko premia bizia –ez da ahaztu behar, gainera, Euskadik kanpo-mendetasun handia eta fosilen mendetasun nabaria duela– (3. *irizpidea*). Alde horretatik, ekimenei ez zaie eskatzen, alde aurretik edo laguntza jaso ondoren, ingurumen-inpaktuko azterlan bat egin behar izateko baldintza (4. *irizpidea*).

3. *Gaitasunak/ahalduntzea*: Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen ENPren helburuak euskal lurralde-eremura mugatzen dira, eta, kanpo-merkatu berriak atzituta, enplegua handitu nahi da Euskal Autonomia Erkidegoan –hala ere, ez da konpromiso berriazkorik adierazten, eta ez da enplegu horren kalitateari buruzko baldintzarik zehazten–. Alde horretatik, ez da elkarren gaitasunak indartzeko logikaren eta minik ez egiteko politikaren –do no harm– aipamenik egiten (5. *irizpidea*), eta, horrenbestez, ez da ekimenak haien xedeko lurraldeetako politiken lehentasunetan txertatzeko asmorik adierazten (6. *irizpidea*). Aurreko irizpideetatik erator daitekeen moduan, ez da analisirako helburu, xede, baldintza edo irizpiderik ezarri ekimenak tokiko produkzio-sarera egokitzen saiatzeko (7. *irizpidea*), beharizan teknologikoetara eta prestakuntza-premietara egokitzen saiatzeko (8. eta 9. *irizpideak*) edo, tokiko enpleguaren hazkunde duina bultzatzeko, nazioarteko lan-esparruan oinarrituta (10. *irizpidea*). Azkenik, ez da baldintza bakar bat ere ezarri inbertsio egonkorak eta epe luzeak bermatzeko baldintzarik, berrinbertsioa lehenetsiko duena, etekinen aberriratzearen aurretik (11. *irizpidea*). Nabarmendu behar dugu Eusko Jaurlaritzako ENPak ez diola garrantzirik ematen lurraldeen arteko truke horizontalari, haren xede nagusia euskal enpresak merkatu berrietan barneratzea baita, honi nola eta zer ikuspegirekin egiten den alde batera utzita.
4. *Parte-hartzea*: Eusko Jaurlaritzaren eta merkataritza-ganbaren arteko lankidetzatza publiko-pribatura mugatzen da parte-hartzea ENPan; izan ere, merkataritza-ganbarek zeregin handia dute diplomazia ekonomiko-korporatiboan, lehiakortasun eta errentagarritasuneko helburu konpartituen harian. Hori horrela, ez da diskriminazio positiboko jardun-morderik sortzen oinarri demokratiko handia duten erakundeentzat, hala nola gizarte-ekonomia eta ekonomia solidarioko kooperatibentzat eta erakundeentzat (12. *irizpidea*), eta kanpo-ekimenetan ez da lortzen gizarte-eragileen esparru zabal eta askotariko baten partaidetza handirik (13. *irizpidea*). Koordinazio, jarraipen eta ebaluazioko egiturei begiratuta, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren hegemonia gailentzen da; gainerako egiturek ez dute beren lanak egiteko behar dituzten eskumenak eta gaitasunak, eta, gainera, urria da, egitura horietan, gizarteko eta sindikatuko ordezkarien partaidetza (14. eta 15. *irizpideak*).
5. *Ekitatea*: Lehen azaldu dugu ez dela irizpide sozialik, ekologikorik eta lan-arloko irizpiderik ezarri –nahiz eta aipamen txiki eta laburra egiten zaion korporazioen gizarte-erantzukizunari–, eta gabezia horren eraginez, Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen ENPak, genero-ekitateko irizpide jakin batzuk jasotzen baldin baditu ere, ez ditu berriazko erreferentzien bidez ezartzen, xedeko herrialdeetarako, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren sustapena (16. *irizpidea*) edo desgaitasun-egoeratarako politikak eta arraza-diskriminazioa debekatzekoak (17. eta 18. *irizpideak*), nahiz eta gai horiek garrantzi handikoak izan lehentasunezko izaera eman zaaien herrialde askotan.

5.2. Gomendioak

Giza garapeneko eta jasangarritasuneko politiken koherentzian oinarritutako ENP bat egiteko urratsak zerrendatzen eta azaltzen hasi aurretik, txosten honen esparruak dituen mugekin lotura zuzena dutenak gogoratuko ditugu lehenik, ekintza estrategikoak izan baitaitezke EAEko ENPa osotasunean ulertzen laguntzeko. Horrenbestez, proposamen hauek egiten ditugu:

- Ikerlana *atzerriko inbertsioen erakarpenaren* esparrura zabaltzea, ENPko alderdi oinarritzko guztien azterketa osatzeko;
- Ikerlana *foru-aldundien* jardunera zabaltzea, lan handia egiten baitute sustapen ekonomikoaren eta atzerriko inbertsioen erakarpenaren alorretan;
- Ikerlana *inpaktu edo eraginetara* zabaltzea, sakon aztertze bultzatu diren ekimenen azken emaitzak.

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ENPren gaineko gomendioak Euskal Autonomia Erkidegoko eskumen-esparrura, eremu geografikora eta enpresa-jardunera mugatzen dira. Premisa horretatik abiatuta, hauek proposatzen ditugu:

1. *Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ENPren izaera birformulatzea*, giza garapen jasangarriaren aldera aldatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen lehiakortasunak eta errentagarritasunak haren egungo ikuspegian duen hegemonia. Ikuspegi hori printzipioak, helburuak, irizpideak eta lehentasunezko ekimenak zehazteko erreferentzia moduan hartzen denean soilik egin daiteke aurrera GPKren jardun moldean edo logikan. Horretarako, honako hau planteatzen dugu:
 - a. *GPKa eta enpresen nazioartekotzea lotzeko 18 irizpideak* hartu behar dira, guztienik, ENP osoaren arau-erreferentzia moduan, agiri estrategikoen esparru teorikotik hasi eta tresnen zehaztapenean amaitu arte;
 - b. *Giza eskubideen nazioarteko esparruak* izan behar du ENP osoaren erreferentzia legezko eta juridikoa, izan ere, kontrapisu bat ezarri behar zaio gaur egun *lex mercatoriaren* eta gizakien eta naturaren eskubideen arteko asimetriari, corpus juridiko horren zati handi bat ezinbestean betetzeko den aldetik;
 - c. *Ezabatu egin behar dira giza garapen jasangarriaren eta giza eskubideen nazioarteko esparruaren aurkako erreferentzia guztiak*, esaterako, nazioarteko hitzarmenak izenpetzen ez dituzten herrialdeak estrategiko/lehentasunezko izendatzea dakartenak eta lan-arloko arauak edo araudi fiskalak berariaz ahulgune moduan hartzen dituztenak, hau da, euskal enpresen nazioartekotzerako xedeko lurraldeak erabakitzeko analisisian alderdi horien balorazio negatiboa egitea –hori egiten du Mexiko Planak–.

2. *Enpresen eta Giza Eskubideen Euskal Zentro bat sortzea*, eta Kataluniako parlamentuak 2016an onartu zuen proposamenaren ildotik¹⁹ (ODHE, 2016), euskal ENPa aztertzeko, kontuak emateko eta ebaluatzeko eginkizunak izatea, eta euskal enpresen kanpo-jardueraren jarraipena egitea. Alde horretatik, SPRIren ordezkartzen betebeharra izan behar luke zentroaren eginkizun horren lan osagarria egitea, giza garapen jasangarrian eta eskubideen nazioarteko esparruan oinarritutako txostenen eta ikuskapenen bidez eta tokiko gizarte-eragileen eta sindikatuen laguntzaz.
3. *Erabakitasunez handitzea* ENPren egituretan eta ekimenean bultzada handiz parte hartzen duten *gizarte-eragileen esparrua*, gaur egun enpresekiko eta merkataritza-ganbarekiko duten asimetria orekatzeko; izan ere, azken horiekin interesen kolusio bat gertatzen da gaur egun, berariazko hitzarmenen bidez gauzatu-tako lankidetzak publiko-pribatuan islatua. Alde horretatik, koordinazioko, jarraipeneko eta ebaluazioko egituretan –Kanpo Harremanetarako Aholku Batzordean edo proposatu dugun Enpresen eta Giza Eskubideen Euskal Zentroan– sindikatuak, GGKEak, gizarte-mugimenduak eta gizarte-ekonomiako eta ekonomia solidarioko erakundeak barneratzeko beharrezana planteatzen da, eta haien partaidetza nahitaezkoa izatea kanpo-diplomaziako misio guztietan.
4. *Eusko Jaurlaritzaren kanpo-ekintzaren pisu politikoa handitzea* ENPa zehazten eta dinamizatzen denean, kanpo-politikaren jardun osoa koordinatzeko egitura den aldetik. Horrela jokatuta, GPKren ikuspegiaren alde egiteko adina gaitasun izan behar luke Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egindako ekimen orotan –Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitekoa apalduko litzateke, lehiakortasun hutsako ikuspegiarekin jarduten den aldetik–. Alde horretatik, izaera estrategikoa du *Kanpo Harremanetarako Aholku Kontseiluari* gaitasun politikoa eta aurrekontu-hornidura egokia ematea, ENPa fiskalizatzeko, jarraitzeko eta ebaluatzeko erreferentzia izan dadin.
5. *Nahitaez bete beharreko irizpideak ezartzea*, giza garapen jasangarrian eta giza eskubideen nazioarteko esparruan oinarrituta –beraz, laguntzak jasotzea eta ekimenean parte hartzea baztertu behar dute–:
 - a. *Baztertu egin behar dira Erromako Hitzarmenean jasotzen diren nazioarteko krimenekin zerikusia duten enpresak.*
 - b. *Laguntzak eman baino lehen –edo, gutxienik, exekuzioari ekin aurretik–, ingurumen-inpaktuko azterlan bat eskatzea ekimen guztiei.*

19 Kataluniako Enpresek Kanpoan duten Inpaktua Ebaluatzeko Zentroaren proposamenari buruzko analisi zehatzago baten berri izateko, egin kontsulta Justizia Globalerako Erakundearen Federazioan (2016).

- c. Bermatu behar da unean uneko ekimenak koherenteak direla *xedeko lurraldearen lehentasun estrategikoekin*, baldin eta lehentasun horiek giza garapenaren eta jasangarritasunaren ikuspegiaren araberrakoak baldin badira;
- d. Ziurtatu behar da ekimenak estrategia bat duela *itzulkin ekonomiko eta sozialak* (ongizatea, gizarte-sarea, teknologia, enplegua, etab.) bermatzeko bi lurraldeentzat eta *gastu publikoaren efizientzia osoa* ziurtatzeko, eta horren bidez, nahitaezkoa izatea finantzaziorik ez ematea eragin negatiboak izan eta gerora bestelako kostu batzuei aurre egin beharra dakarten jarduerak;
- e. Nahitaez bete beharrekoa izan behar du *nazioarteko lan-esparruak*, aintzat hartu gabe estatu bakoitzeko legediak maila apalagoan babesten ote dituzten langileak. Alde horretatik, ez da ekimenik egingo Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarritzko lan-hitzarmenak izenpetu ez dituzten herrialdeetan;
- f. *Babes-neurriak eta lan-arloko erantzukidetasuna* eskatu behar dira proposamen teknikoetan, eta zehaztasunez adierazi behar dira txeke-zerbitzuaren edo baliabide sozial eta komunitarioetarako sarbidearen moduko neurriak, adingabekoei eta mendeko pertsoneri arreta ematea lagunduko dutenak, hala nola lanaldi-murrizketen gaineko hobekuntzak, eszedentziak, amatasun edo aitatasuneko lizentziak eta baimenak, kontziliazio-beharrizanen arabera malgutzea, egokitzea edo berresleitzea zerbitzuak eta ordutegiak. Irizpide hori jatorritzko eta xedeko lantokietan betetzeko izan behar du, kanpo-erazpen iraunkor bat egin behar baldin bada hirugarren herrialderen batean;
- g. Ezinbestean bermatu behar da bultzatutako ekimenetan ez dela *diskriminaziorik egingo sexuaren, generoaren, arraza/etniaren edo dibertsitate funtzionalen arazoengatik*, ez proposamenetan, ez horien garapenean;
- h. Misio diplomatikoen *euskal sindikatuen eta eragile sozialen partaidetza handia* izan behar dute, eta tokiko sindikatuekin eta gizarte-eragileekin egiteko jarduerak sartu behar dira misio horien agendan;
- i. Euskal enpresek jarduera komertzialak, produktiboak eta finantzarioak egiten dituzten lurraldeetan publiko egin behar da *filialen identifikazioa, hornitzaileena, azpi-kontratatena eta nortasun juridikoa duten beste enprekin edo erakundeekin parte hartzeko moduaren formula juridikoa*;
- j. Zuzenean baztertu behar dira *paradisua fiskaletan kontuak dituzten euskal enpresak*;
- k. Eusko Jaurlaritzak lagundutako jarduerak egunean ordainduta izan behar dituzte *xedeko lurraldeko zerga-betebeharrak*;

6. *Laguntzen deialdiak barematzeko irizpideak aldatu behar dira*, puntuazio guztiaren gutxienez % 40 iritsi dezaten irizpide sozialek, ekologikoez, lan-arlokoek, kulturek eta genero-ekitatekoek –betiere, 5. gomendioan adierazi diren nahitaezko irizpideak betetzen direla ziurtatuta–, irizpide teknikoekin eta enpresa-irizpideekin batera. Alde horretatik, nabarmendu behar dugu garrantzi handikoa dela honako hauek jatorrian, eta, bereziki, xedeko lurraldean barematzea:

- a. Jasangarritasunaren eta energia-trantsizioaren aldeko apustua;
- b. Xedeko lurraldean eta jatorriak gaitasunak indartzeko helburuak eta estrategiak, ongizatearen eta jardun ekonomikoaren alderdietan;
- c. Transferentzia teknologikoaren nolakotasuna eta egokitasuna;
- d. Xedeko lurraldean emandako prestakuntzaren eta elkarrekin ikastearen garrantzia;
- e. Sortutako enpleguaren lan-babesaren nolakotasuna;
- f. Inbertsio egonkor eta epe luzeko baten aldeko konpromisoa, berrinbertsioak lehenetsita;
- g. Gizarte-ekonomiako eta ekonomia solidarioko formulak indartzeko ahalegina;
- h. Sexuko, genero, arraza/etniako eta dibertsitate funtzionaleko asimetriak zuzenduko dituzten enpleguko adierazle eta helburu zehatzak.

Finan, adierazi behar dugu hobetzeko tarte handia duela Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen ENPak, asko baitu egiteko oraindik. Alde horretatik, egun indarrean dituen parametroak –batik bat lehiakortasunari begiraten diotenak– aldatzeko bidea jorratzen dute gure gomendioek, beste parametro batzuei erreparatzeko, giza garapen jasangarriari eta giza eskubideen nazioarteko esparruari begiratuta.

Gomendio horien bidez, egitura berri bat proposatzen dugu, merkataritza-ganbarekin ezarrita dagoen lankidetzaren publiko-privatuko esparru estua beste ikuspegi baten mesedetan zabaltzeko. Egitura horren ikuspegiak oraingoa baino inklusiboa izan behar du jatorriko eta xedeko lurraldeetako gizarte-eragileekin, eta lehiakortasunetik haragoko ikuspegietatik lehenetsi behar du kanpo-ekintzaren koordinazioa. Era berean, jarraipeneko eta ebaluazioko egitura berri bat sortu behar du, GPKren lehentasuna bermatuko duena eta euskal enpresen kanpo-ekintza fiskalizatuko duena, bai ENPan parte hartzen dutenena, bai politika horren parte hartzen ez dutenena.

Horrez gainera, planteatzen dugun estrategiak ezinbestean izan behar ditu oinarrian gutxieneko baldintza sozialak, ekonomikoak, enpleguak eta genero-ekitatekoak –jarraipen zorrotza izan behar dutenak– beteko dituzten tresnak, eta baldintza horiek, era be-

rean, sustatzen diren ekimenak barematzeko baloreak izango dira, alderdi teknikoekin eta enpresa-alderdiekin batera.

Bide hori urratu behar du, gure ustez, egiaz GPKren alde egingo duen ENPak. Hala ere, txostenean behin eta berriz adierazi dugun moduan, egindako proposamenek ez dakarkiotte kontraesanik ENPa, giza garapen jasangarrirako balizko estrategia moduan, auzitan jartzen duten ikuspegiei, lehiakortasunari atxikitzen baitzaio oinarrian. Edonola ere, planteatzen den bide-orri honen bideragarritasunak edo bideragarritasun eza input edo sargai funtsezko bat izango da ENPren izaeraren eta eraldatze-gaitasunaren gaineko debategen aurrera egiteko.

Bibliografia

- ARABA, BILBAO ETA GIPIZKOAKO MERKATARITZA-GANBERAK eta EUSKO JAURLARITZA (2016): *Lankidetzeta-hitzarmena, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren, eta Arabako, Bilboko eta Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialen artekoa, kanpo-merkataritzaren arloan ekintza bateratuak antolatu eta garatzeko 2016an zehar*. Hemen eskuragarri: http://www.legegunea.euskadi.eus/contenidos/tramita_nbnc_convenio_colaboracion/nbnc_cco_89580_2016_03/eu_def/adjuntos/ganberekin_hitzarmena_sinatuta_2016.pdf
- BILBAO, Izaskun (2016): *TTIP: No todo vale*, Deia, uztailak 17. Hemen eskuragarri: <http://www.deia.com/2016/07/17/opinion/tribuna-abierta/ttip-no-todo-vale>
- BILBOKO MERKATARITZA-GANBERA-a (d.gb.): *La Cámara*. Hemen eskuragarri: https://www.camarabilbao.com/ccb/la_camara
- BILBOKO MERKATARITZA-GANBERA-b (d.gb.): *Misiones Comerciales 2016*. Hemen eskuragarri: https://www.camarabilbao.com/ccb/comercio_internacional_promocion_exterior_misiones_comerciales_2016_contenidos_3069300_6702261_contenidos_3069300_3069300_contenidos_3069300_3069300/contenidos/3069300/6702261
- BILBOKO MERKATARITZA-GANBERA-c (d.gb.): *Servicio de exportación a tiempo parcial – PROFEX*. Hemen eskuragarri: [https://www.camarabilbao.com/ccb/comercio_internacional/servicio_de_exportacion_a_tiempo_parcial_\(profex\)](https://www.camarabilbao.com/ccb/comercio_internacional/servicio_de_exportacion_a_tiempo_parcial_(profex))
- BIZKAIA TALENT (d.gb.): *Euskadi zain duzu. Munduan erreferentzia den kluster sistema*. Hemen eskuragarri: <https://www.bizkaiaalent.eus/eu/pais-vasco-te-espera/apuesta-de-futuro/sistema-clusteres-referencia/>
- DUBOIS, Alfonso (2008): *Equidad, bienestar y participación. Bases para construir un desarrollo alternativo. El debate sobre la cooperación al desarrollo del futuro*, Lan-koadernoak, 26. zk., Bilbao, Hegoa.
- EHAA (2005): *Agindua, 2005eko martxoaren 15ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, Elkartzen programa arautzen duena. Elkartzen programaren bidez laguntzak ematen zaizkie irabazi-asmorik gabeko erakundeei, kanpo sustapeneko jarduerak egin ditzaten*. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2005001995>
- EHAA (2011a): *Agindua, 2011ko apirilaren 13koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, Nazioartekotze Beken Programa arautzen duena*. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2011002289>

EHAA (2011b): *Agindua, maiatzaren 18koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, honen bitartez, Euskadiko enpresen kanpo ezarpenak sor eta gara daitezten sustatzeko Gauzatu Kanpo Ezarpenak Programa arautzen da*. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2011002920>

EHAA (2012): *Agindua, 2012ko ekainaren 13ko, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, Elkartzen programa garatzen duena. Programa horren bidez laguntzak ematen zaizkie irabazi-asmorik gabeko erakundeei kanpo sustapeneko jarduerak egin ditzaten*. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2012002878>

EHAA (2013): *Agindua, 2013ko martxoaren 20koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Nazioartekotze Bekak programa arautzen duen agindua aldatzekoa*. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2013001640>

EHAA (2014a): *Agindua, 2014ko martxoaren 19koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko sailburuarena, banaka nahiz lankidetzan jarduten duten ETEen nazioartekotzeari laguntzeko Global Lehian programa garatzekoa*. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2014001522>

EHAA (2014b): *Agindua, 2014ko martxoaren 26koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinen bidez arautzen baitira unibertsitateko eta goi-mailako lanbide-heziketako titulazioa duten gazteek atzerriko enpresetan eta erakundeetan praktikak egin ahal izateko Global Training deituriko beken programa abian jartzeko ahalmena duten erakundeentzako laguntzak*. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2014/04/1401546e.shtml>

EHAA (2014c): *Ebazpena, 2014ko azaroaren 12koa, Nazioartekotzeko zuzendariarena. Honen bidez jakinarazten da, 2014ko ekitaldian, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko martxoaren 15eko Aginduan aurreikusi, eta geroztik 2012ko ekainaren 13ko Agindua bidez aldatu ziren diru-laguntzen onuradun izan direnen zerrenda; agindu horien bidez, Elkartzen Programa arautzen da, irabazi-asmorik gabeko erakundeei zuzendutako laguntzen inguruan dena, kanpoko garapenerako ekintzak gauzatzeko. 2014ko deialdia Industriako sailburuaren 2014ko apirilaren 30eko Ebazpenaren bidez egin da*. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2014/11/1404989e.pdf>

EHAA (2015a): *Agindua, 2015eko apirilaren 1koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, sailburu horren 2014ko martxoaren 26ko Agindua aldatzen duena. Agindu horren bidez arautzen dira unibertsitateko eta goi-mailako lanbide-heziketako titulazioa duten gazteek atzerriko enpresetan eta erakundeetan praktikak egin ahal izateko Global Training deituriko beken programa abian jartzeko*

ahalmena duten erakundeentzako laguntzak. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2015/04/1501651e.shtml>

EHAA (2015b): *Agindua, 2015eko ekainaren 17koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Interlehian programa, nazioarteko lizitazioetan parte-hartzen laguntzekoa, 2015. urterako arautzen eta deitzen duena*. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2015002887&BOPV_HIDE_CALENDAR=true

EHAA (2015c): *Agindua, 2015eko ekainaren 17koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegora itzulitako euskal profesionalak kontratatuzeko, 2015eko ekitaldiari dagokionez, EAEn kokatutako enpresei diru-laguntzak emateko LANdhome programaren arauak ezarri eta deialdia egiteko dena*. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2015/06/1502860e.pdf>

EHAA (2015d): *Ebazpena, 2015eko otsailaren 23koa, Industriako sailburuordearena. Honen bidez, jakitera ematen da Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko maiatzaren 18ko Aginduak aurreikusten zituen diru-laguntzen onuradunen zerrenda, 2014ko ekitaldian. Agindu horrek arautzen du euskal enpresak kanpoan sortu, ezarri eta garatzea bultzatzeko Gauzatu programa – Kanpoko ezarpenak*. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2015/03/1501096e.pdf>

EHAA (2015e): *Ebazpena, 2015eko otsailaren 26koa, Industriako sailburuordearena. Honen bidez, jakitera ematen da Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko martxoaren 19ko Aginduak aurreikusten zituen diru-laguntzen 2014ko ekitaldiko onuradunen zerrenda. Agindu horrek arautzen du banaka nahiz lankidetzan jarduten duten ETEen nazioartekotzeari laguntzeko Global Lehian programa*. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2015/03/1501128e.pdf>

EHAA (2016a): *96/2016 Dekretua, ekainaren 28koa, Kanpo Harremanetarako Aholku Batzordea sortu eta arautzen duena*. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2016002939>

EHAA (2016b): *Agindua, 2016ko urtarrilaren 27koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, nazioartekotzeko beken BEINT programa arautzen duena*. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/02/1600685e.shtml>

EHAA (2016c): *Agindua, 2016ko apirilaren 6koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aratu egiten baita Kanpo Ezarpenetarako Gauzatu Programa, hau da, Euskadiko enpresak kanpoan sortu, ezarri eta garatzea bultzatzeko dena*. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2016001934>

EHAA (2016d): *Agindua, 2016ko apirilaren 6koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, nazioarteko lizitazioetan parte-hartzen laguntzeko Interlehian 2016 programa arautu eta horren deialdia egiten duena, 2016ko ekitaldirako*. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/04/1601763e.shtml>

EHAA (2016e): *Agindua, 2016ko ekainaren 29koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita LANdhome programa, Euskadira itzulitako euskal profesionalak kontratatzeko diru-laguntzak ematekoa EAEn kokatutako enpresei 2016ko ekitaldian, eta programa horren deialdia iragartzen*. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/07/1603354e.pdf>

EHAA (2016f): *Ebazpena, 2016ko urtarrilaren 14koa, Nazioartekotzeko zuzendariarena. Honen bidez jakinarazten da, 2015eko ekitaldian, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2005eko martxoaren 15eko Aginduan aurreikusi, eta geroztik 2012ko ekainaren 13ko Aginduaren bidez aldatu ziren diru-laguntzen onuradun izan direnen zerrenda; agindu horien bidez, Elkartzen Programa arautzen da, irabazi-asmorik gabeko erakundeei zuzendutako laguntzen inguruan dena, kanpoko garapenerako ekintzak gauzatzeko. 2015eko deialdia Industriako sailburuordearen 2015eko otsailaren 25eko Ebazpenaren bidez egin da*. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/02/1600553e.pdf>

EHAA (2016g): *Ebazpena, 2016ko otsailaren 10ekoa, Nazioartekotzeko zuzendariarena. Honen bidez jakitera ematen da Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko martxoaren 19ko Aginduan aurreikusten ziren 2015ekoekitaldikoko diru-laguntzen onuradunen zerrenda. Agindu horrek arautzen du banaka nahiz lan-kidetzan jarduten duten ETEen nazioartekotzeari laguntzeko. Global Lehian programa. Horretarako 2015eko deialdia egin zen Industriako sailburuordearen 2015eko apirilaren 22ko Ebazpenaren bidez*. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/03/1600924e.pdf>

EHAA (2016h): *Ebazpena, 2016ko maiatzaren 9koa, Nazioartekotzeko zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baita Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko ekainaren 17ko Aginduan aurreikusten diren diru-laguntzen onuradun izan direnen zerrenda (2015eko ekitaldia)*. Agindu horren bidez, nazioarteko lizitazioetan parte hartzen laguntzeko Interlehian Programa arautzen da, eta, era berean, 2015eko ekitaldirako deialdia egiten da. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2016/05/1602039e.pdf>

ELGE (2014): "Policy challenges for the next 50 years", *OECC Economic Policy Papers*, 9. zk.

EUSKO JAURLARITZA (d.gb.): Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia. Organigrama. Hemen eskuragarri: <http://www.euskadi.eus/kanpo-harremanetarako-idazkaritza-nagusia/web01-s1leheki/eu/>

- EUSKO JAURLARITZA (2014a): *Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Basque Country Estrategia*, Gasteiz, 1-56. or. Hemen eskuragarri: https://www.irekia.euskadi.eus/assets/attachments/4437/EstrategiaBasqueCountry_es.pdf
- EUSKO JAURLARITZA (2014b): *2014-2016 aldirako Kanpo Ekintzako Plana*, Gasteiz, 57-100. or. Hemen eskuragarri: https://www.irekia.euskadi.eus/assets/attachments/4437/EstrategiaBasqueCountry_es.pdf
- EUSKO JAURLARITZA (2014c): *Enpresak Nazioartekotzeko Plana 2014-2016*, Gasteiz. Hemen eskuragarri: http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes_programas_2010/eu_planes/adjuntos/Plan_de_Inter_Emp_eu.pdf
- EUSKO JAURLARITZA (2014d): *Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programa*. Gasteiz. Hemen eskuragarri: http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/4143/dok_oso_ekonomiaren_susperraldiaren_eta_enplegu_aldeko_esparru_programa.pdf?1391778669
- EUSKO JAURLARITZA (2016): *Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparrua*, Gasteiz. Hemen eskuragarri: http://www.elankidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/coherencia_avcd/eu_def/adjuntos/Erreferentzia%20Esparrua%20CPD_EUS.pdf
- FERNÁNDEZ, Gonzalo (2016): *Alternativas al poder corporativo: 20 propuestas para una agenda de transición en disputa con empresas transnacionales*, Bartzelona, Icaria.
- FERNÁNDEZ, Gonzalo, PIRIS, Silvia eta RAMIRO, Pedro (2013): *Cooperación internacional y movimientos sociales emancipadores: Bases para un encuentro necesario*, Bilbao, Hegoa. Hemen eskuragarri: http://omal.info/IMG/pdf/cooperacion_internacional_y_movimientos_sociales_emancipadores.pdf
- GARAY, Ane (2012): "Zuzeneko Inbertsio Atzerritarak" in *Enpresa transnacionalen hiztegi kritikoa*, Bartzelona, Icaria, 237-241. or.
- GLEA (2015a): *Garapenerako Lankidetzaren III. Gida Plana*, Gasteiz. Hemen eskuragarri: https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/6359/III._Gida_Plana_behin_betikoa.pdf?1430314301
- GLEA (2015b): *Garapenerako politiken koherentzia Euskadin: diagnostikoa eta proposamenak*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Hemen eskuragarri: http://www.elankidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_memorias/eu_pubmem/adjuntos/Garapenerako%20Politiken%20Koherentzia%20-%20Diagnostikoa%20eta%20proposamenak.pdf
- HERNÁNDEZ, Juan eta RAMIRO, Pedro (2015): *Contra la lex mercatoria*, Bartzelona, Icaria.

HERNÁNDEZ, Juan eta RAMIRO, Pedro (2016): *¿Qué son los crímenes económicos y ecológicos internacionales?*, La Marea, urtarrilak 22. Hemen eskuragarri: <http://www.lamarea.com/2016/01/22/que-son-los-crímenes-economicos-y-ecologicos-internacionales/>

HERRIEN AUZITEGI IRAUNKORRA (2014): *Libre comercio, violencia, impunidad y derechos de los pueblos en México. Audiencia final*. Mexiko hiria, 2014ko azaroak 12-15. Hemen eskuragarri: <http://www.stopcorporateimpunity.org/wp-content/uploads/2014/11/SENTENCIA-AUDIENCIA-FINAL-TPP-MEXICO-definitiva-final.doc>

INTERSAREA (2014): *Antolamendua. Nazioartekotze Zuzendaritza*. Hemen eskuragarri: http://www.euskadi.eus/web01-a2elikal/eu/contenidos/organo/8_direc_internacionalizacion/eu_10440/eu_dir_internaliz.html

IREKIA (2014a): *Erabakia, Euskadi 2020 Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programa onartzekoa. (2014-01-28ko Kontseiluan hartutako erabakiaren laburpena)*, urtarrilak 28. Hemen eskuragarri: <http://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/17656-acuerdo-aprobacion-del-programa-marco-por-empleo-reactivacion-economica-euskadi-resumen-del-acuerdo-del-consejo-gobierno-del-2014?track=1>

IREKIA (2014b): *Arantxa Tapia viaja a México donde arrancará una agenda exclusivamente empresarial hasta la llegada del Lehendakari*, urriak 22. Hemen eskuragarri: https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/22492-arantxa-tapia-viaja-mexico-donde-arrancara-una-agenda-exclusivamente-empresarial-hasta-llegada-del-lehendakari?criterio_id=774992&track=1

IREKIA (2014c): *Eusko Jaurlaritzak Enplegu eta Ekonomia Suspertzearen aldeko programa onartu du 32.000 lanpostu berri sortzeko*, urtarrilak 28. Hemen eskuragarri: <http://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/17767-gobierno-vasco-aprueba-programa-por-empleo-reactivacion-economica-para-crear-000-nuevos-puestos-trabajo>

IREKIA (2015a): *Eusko Jaurlaritzak nazioartekotze alorreko bi programa berritzaile sustatuko ditu: LANdhome eta Interlehian. (2015-06-16ko Kontseiluan hartutako erabakiaren laburpena)*, ekainak 16. Hemen eskuragarri: <http://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/26885-gobierno-vasco-impulsa-landhome-interlehian-dos-programas-innovadores-materia-internacionalizacion-resumen-del-acuerdo-del-consejogobierno-del-2015>

IREKIA (2015b): *Global Lehian: 5.520.000 euro milioi enpresak nazioartekotzeko. (2015-04-21eko Kontseiluan hartutako erabakiaren laburpena)*, apirilak 21. Hemen eskuragarri: http://www.irekia.eus/eu/news/25786-global-lehian-520-000-euros-para-internacionalizacion-empresas-resumen-del-acuerdo-del-consejo-gobierno-del-2015?criterio_id=858251&track=1

- IREKIA (2016): *12,4 milioi euro euskal enpresak nazioartekotzeko (Gobernu Bilera 2016-04-05)*, apirilak 5. Hemen eskuragarri: <http://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/31770-euros-para-internacionalizacion-empresas-vascas-consejo-gobierno-2016?track=1>
- JUSTIZIA GLOBALERAKO ORGANIZAZIOEN FEDERAZIOA (2016): *Centro de evaluación de los impactos de las empresas catalanas en el exterior*. Hemen eskuragarri: <http://www.lafede.cat/wp-content/uploads/2016/06/InformeAvEmpCAST.pdf>
- NAZIOARTEKOTZEAREN EUSKAL PARTZUERGOA (2014): *Nazioartekotzeko Euskal Partzuergoa sortzeko lankidetzeta-hitzarmena*, Gasteiz. Hemen eskuragarri: http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/5548/firma_convenio_colaboracion_creacion_consortio_vasco_de_internacionalizac....pdf?1417789105
- NAZIOARTEKOTZEAREN EUSKAL PARTZUERGOA (2016): *Euskal enpresak nazioartekotzeko programen eta zerbitzuen gida 2016*. Hemen eskuragarri: http://www.spri.eus/doc/gida_basque_comsorcium_EUS.PDF
- ODHE (2016): *El parlamento de Cataluña aprueba la propuesta de resolución para crear un centro de evaluación de impacto de empresas catalanas en el exterior*, azaroak 4. Hemen eskuragarri: <http://www.odhe.cat/es/el-parlamento-de-cataluna-aprueba-la-propuesta-de-resolucion-para-crear-un-centro-de-evaluacion-de-impacto-de-empresas-catalanas-en-el-exterior/>
- PEREZ, Javier (2015): *La política española de internacionalización de la empresa. Un análisis desde la coherencia de políticas para el desarrollo*, Madril, 2015 Plataforma eta beste batzuk. <http://www.2015ymas.org/centro-de-documentacion/publicaciones/2015/1594/la-politica-espanola-de-internacionalizacion-de-la-empresa-un-analisis-desde-la-coherencia-de-politicas-para-el-desarrollo/#.WHNV56JyzBQ>
- PNUD (2010): *La verdadera riqueza de las naciones: caminos al desarrollo humano. Informe de Desarrollo Humano*.
- RAMIRO, Pedro (2009): "Las multinacionales y la Responsabilidad Social Corporativa: de la ética a la rentabilidad", in HERNÁNDEZ, Juan eta Pedro Ramiro (eds.), *El negocio de la responsabilidad*, Bartzelona, Icaria.
- SPRI-a (d.gb.): SPRIren kanpo-sarearen zerbitzuak. Hemen eskuragarri: <http://www.spri.eus/eu/nazioartekotzea/spriren-kanpo-sarearen-zerbitzuak>
- SPRI-b (d.gb.): *SPRI, nortzuk gara*. Hemen eskuragarri: <http://www.spri.eus/eu/nortzuk-gara>
- SPRI-ULIKER 3 (2014): *Nazioartekotzerako Euskadi-Mexiko Plangintza Estrategikoa. Laburpen exekutiboa*.
- SUTCLIFFE, Robert (1995): "Desarrollo frente a ecología", in *Ecología Política: Cuadernos de Debate Internacional* 9. zk., 27-49.

TEITELBAUM, Alejandro (2010): *La armadura del capitalismo. El poder de las sociedades transnacionales en el mundo contemporáneo*, Bartzelona, Icaria.

UNCETA, Koldo; MILLÁN, Natalia; ÁLVAREZ, Yesica; AMIANO BONATXEA, Iratxe; GUTIÉRREZ GOIRIA, Jorge; LABAIEN, Irati; MARTÍNEZ HERRERO, María José; SABALZA, Michel; VILLENA, Unai; ZABALA, Idoye (2014): *Garapenerako politiken koherentzia Euskadin: diagnostikoa eta proposamenak*, Bilbao, Hegoa; Eusko Jaurlaritza. Hemen eskuragarri: <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/335>

UPV/EHU (2015): *Programa. Nazioarteratzea Enpresaren Arloko Unibertsitateko Espezialistaren berezko titulazioa. 2015 ikasturtea*. Gasteiz.